



Hurbiltasuna faktorea kultura-politiketan **_2015**



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

Hurbiltasuna faktorea kultura-politiketan **_**2015

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak
katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2016ko urtarrila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Diagonal | Comunicación 360º



Hurbiltasuna faktorea kultura-politikan

1_Aurkezpena _5

2_Sarrera: "Hurbiltasun" faktorea kultura-politikan _6

2.1. KULTURA-POLITIKAK: BEGIRATU BAT ATZERA _7

2.2. "HURBILTASUNA" FAKTOREAREN DIMENTSIOK _9

2.3. ERREFERENTZIA: AGENDA 21 _10

3_Hurbiltasunaren inplikazioak: kontzeptuak, ekintzak eta tresnak _12

3.1. LOTURIKO KONTZCEPTUAK _13

3.2. EKINTZA MOTAK _14

3.3. HURBILTASUNEN KULTURA-POLITIKEN TRESNAK _15

4_Hurbiltasuneko kultura-politika ereduak eta jardunbide egokiak _17

4.1. HURBILTASUNEN KULTURA-POLITIKA EREDUAK _18

4.2. JARDUNBIDE EGOKIEN HAUTAKETA _19

_4.2.1. SARBIDE-POLITIKAK _19

_4.2.2. ADIERAZKORTASUN-POLITIKAK _20

_4.2.3. ZERBAITEN PARTE IZATEAREN POLITIKAK _20

Ondorio gisa _22

Aipatutako bibliografia _24

Eranskina. jardunbide egokiak _26

1 Aurkezpena

Hurbiltasuna kontzeptua eztabaiden erdi-erdian dago; kultura-politiketan beti hor egon baldin bada ere, duen garrantzia areagotuz joan da, tokiko gobernantzan zeharkakotasunez landu beharreko faktorea den heinean. Hori dela eta, oso konplexua da kontzeptu hori aztertzea, gai ugari biltzen dituen eremu zabal batera baikaramatza.

Lan honetan, hurbiltasuneko kultura-politiketara gerturaten saiatu gara, hala teorian nola praktikan. Teoriaren arloan, kontzeptu horren esanahia eta inplikazioak berrikusi ditugu. Horrela, aurki daitezkeen hurbiltasuneko kultura-politika moten eredu moduko batzuk zehaztu ditugu. Eredu horiek errealitatera hurbiltzeko eta garrantzitsuak izan daitezkeen kasuak hautemateko baliatuko ditugu gero, maila praktikokan.

Ildo horretan, hauxe da hemen garatu dugun galdera giltzarria: «Hurbiltasuna izeneko faktoreak nola moldatzen ditu kultura-politikak eta politika horien xede den errealitatea?». Abiapuntuko hipotesia da “hurbiltasun” faktoreak balio erantsia ematen diela kultura-politikei, zuzenean erantzuten dielako herritarren beharrezaneiei, eta, aldi berean, kanpo-efektu positiboak sortzen dituelako kasuan kasuko errealitatean.

Horrenbestez, honako hauek dira planteatzen diren helburuak, eta txosten honek erantzun nahi dituenak:

- “Hurbiltasun” faktorea eta bere dimentsio giltzarriak lantzea.
- Hurbiltasuneko kultura-politikak aztertzea eta zer ezaugarri dituzten ikustea.
- Jardunbide egokiak hautematea, horien bidez hurbiltasuneko kultura-politiken egungo errealitatea zirriboratu ahal izateko.

Hasteko, “hurbiltasun” faktoreak tokiko gobernantzaren zeharkako faktore gisa duen egitekoaren zirriborro bat egin dugu, kultura-politikei buruzko berrikuspen historiko txiki bat azaldu dugu –hurbiltasuna izeneko faktoreak gaur duen garrantzia ulertzen laguntzeko–, eta bere hiru dimentsioak eta Agenda 21eko elementu giltzarriak aztertu ditugu; izan ere, agenda hori baita mota honetako politiken erreferentzia nagusia.

Behin historikoki eta teorikoki kokatu ostean, aztertu dugu hurbiltasuneko kultura-politiken berariazko kasuan hurbiltasunak zer-nolako harremana duen zenbait printzipioekin eta intereseko gertakirekin. Atal horretan, politika horiek aurrera eramateko erabiltzen diren tresnak eta ekintza motak nabarmendu ditugu.

Adierazitako elementu horiekin, politika horien eredu moduko batzuk egin ditugu, errealitatera hurbiltzeko eta jardunbide egokien kasuak hautemateko. Lanaren amaieran, erabilitako irizpideak eta hautemandako praktikak zehaztu ditugu. Ondorioak ere jaso ditugu, eta, horien bidez, “hurbiltasun” faktorearen garrantzia eta ezaugarriak berrikusi ditugu.

2_Sarrera:

“Hurbiltasun” faktorea kultura-politiketan

Azken urteotan, politiken hurbiltasun-faktorea zentralitate handiagoa hartzen joan da eztabaida teorikoan; praktika politikoan ere bai, gero eta gehiago. Hurbiltasun-faktorea gobernantzaren esparru bakoitzean hainbat eratan gauzatzen bada ere, paradigma-aldaketa gisa, aspaldiko auziei hainbat erantzun planteatzen dizkie, eta, horrez gain, helburu berriak eta bitarteko zein tresna berriak proposatzen ditu. Horrela, esanahia zabaltzen joan da.

Ulertu behar da, beraz, hurbiltasuna sektore-politikekiko zeharkako faktore bat dela, eta kultura-politikatik harago gauza daitekeela. Faktore hori guztiz bateragarria da bikaintasunarekin, nahiz eta, batzuetan, elkarren aurkako kontzeptu gisa planteatzen diren. Izatez, hurbiltasun-faktoreak tokiko politikak orokorrean kontzeptualizatzea ahalbidetzen du; horien adibide ditugu, esaterako, hurbiltasuneko kultura-politikak –adibideetan garatuena, beharbada–.

Hurbiltasuna, gaingiroki, zentzu sozialetik ikusita, Administrazioaren eta herritarraren arteko gertutasuna litzateke. Ohi baino harreman intimoagoa da, horrela esatea zilegi bada. Horregatik, herritarren arazoak zehazkiago jasotzeko eta tratatzeko daukan aukerak ematen dio boterea, kasu bakoitzerako irtenbide eraginkorrak aurkituz, errezeta magikorik ez dagoen ingurune konplexu batean (Martinell, A., 2014).

Hurbiltasuna, beraz, zeharkako balioa da; kulturarako sarbidea sustatzeaz harago, zerbaiten parte izateko sentimendua eta pertsonen adierazpen-gaitasuna indartzen ditu (Barbieri et al, 2012). Horrela, “hurbiltasun” faktoreak esparru berria eratzen du harreman sozial eta politikoetarako. Gainera, eragile berriei toki egiten die eta haien arteko erlazioak birdefinitzen ditu: herritarrei protagonismo berezia ematen die, eta funtsezko eta lotesle bihurtzen du haien parte-hartzea. Esparru hori tokiko eremuan eratzen da, hori baita hurbiltasunaren espazio nagusia.

Hurbiltasun faktoreak ematen duen zeharkakotasunak bat egiten du kultura-politiken berezko zeharkakotasunarekin. Kultura-politikek, berez, ahalmena du beste politika publiko batzuen (hezkuntza-, osasun- edo ingurumen-politikak, adibidez) helburuak lortzen laguntzeko (Belfiore, 2006, in Barbieri et al, 2012).

Orain arte azalduakoa laburbiltzeko, C. Schulmeister-ek hurbiltasunaren ezaugarriak biltzen ditu, laburki: “**hurbiltasuna** udala eratzen duten elementuen arteko ehunen barnerako gertutasuna da –eta ez biztanleria soilik aintzat hartuta–, tarreak laburrak izatearen ondorioz.

Horren emaitza dira ondorengo guztiak: hurbiltasun fisikoa, gizarte-interakzioen eta pertsonen eta instituzioen arteko komunikazioaren modalitateak eta maiztasuna; partekatutako memoria indartsu bat izatea, eta, beste batzuekin batera, espazio eta komunitate erkide baten parte izanaren sentsazio sendoa; guztiak ere pertsonen identitatea eratzekeko prozesuetan parte hartzen duten elementuak dira» (2008: 4).

2.1 **Kultura-politikak:** Begiratu bat atzera

Kultura-politikek kultura demokratizatzeke borondatean dute inspirazio-iturria, eta asmo horrek legitimatzen ditu. Kulturarako sarbidea berdintasun-baldintzetan unibertsalizatzeke saiakera gisa ulertu behar da prozesu hori.

Saiakera hori joan zen mendeko hirurogeiko hamarraldian hasi zen Europan. Kultura-politiken paradigmatik bere izaera birbanatzailean jartzen zuen indarra, kulturaren kontzeptu ilustratuaren gainean eratzen zen (zibilizazio- eta modernotasun-ideiekin lotuta), estatu- edo nazio-perspektibadun eragile publiko eta pribatuaren arteko kontratu baten gainean. Era horretan, azpiegitura handiak sortzea sustatu zuten –eta gobernuak berehala nahieran erabili zituzten, bide batez esanda–.

80ko hamarralditik aurrera, zalantzan jarri zen kultura oinarritzko eskubidea ote zen, Estatuak zuela bermatzaile bakar. Kultura tokiko gobernuen bidez sustatzeke aukera planteatzen hasi ziren, eta eredu hibrido berriak sortzen, hala kultura-politikan nola ekipamenduenean. Esku-hartzearen ikuspegitik, aldatu egin zuten indargunea: sektore-begirada utzi, eta begirada integrala hartu zuten; eragiletza-gaitasuna (ekintzarako eta esku hartzeke gaitasun autonomoak), ordura arte erakundeen edo gobernuen mailan kontzentratzen zena, zabaldu egin zuten, eta lurraldeke eragileen parte-hartzera ireki. Lidergoan, berriz, goitiki beherako kudeaketa eta kontrola izatetik, sareen sustapenera igaro zen.



Agendak arazo eta eskaera berriak ekarri zituen; beste hitz batzuekin esanda, kulturaren gobernantza-aldia hasi zen. Politikek utzi egin zituen beren xedeak kanpoko objektu gisa behatzeari, lurralde bakoitzaren berezitasunak gainditzen zituen oinarritzko begirada izateari, eta eskaerak pertsonal eta komunitario gisa hasi ziren jasotzen, gertuko espazioak bilatuz, eta ekintzarako xedea esku hartzen zuten tokian bertan aurkituz.

Hori guzti hori gorabehera, kultura-politikarako tokiko eredu berriak sortzeak ez zituen alde batera utzi jada planteatuta zeuden erronkak eta ezbaiak; Rius-ek iradoki bezala (2014), indarrean jarraituko zuten: «azken efektua vs balio kulturala, gertaera handiak vs ekintza txikiak, nazioarteko proiektzioa vs tokiko garapena».

Euskal Autonomia Erkidegoan, bilakaeraren ikuspegitik, Zallo-k (2012) hiru etapa markatu zituen kultura-politiken garapenean: lehenengoa, normalizazioarena, politikoki jazarritako kultura bat berriro balioetsi zuena; bigarrena, instituzionalizatzearena; eta, hirugarrena, gobernantzearena. Edonola ere, bilakaera-prozesu horren ondorioz, Euskadiko kultura-politikak gehiago du politikatik kulturatik baino, Martínez de Albéniz-en azterketaren arabera (2012).

Lehen etapan, 80ko hamarraldiaren azkenetara arte, ahalegin handienak sistema kultural eta politikoa berreraikitzen egin ziren, sorkuntzarako laguntza-sistemak ezarriz, kultura propioa ezagutarazteko zabalkundearen indarra jarritz, ekipamendu-programarekin eta ondarea berreskuratzearen eta hobetzearen bitartez. Tokian tokiko eremuan, espazio publikoa berreskuratzeko unea izan zen, tradizioa eta memoria kolektiboa aldarrikatzekoa, eta, aldi berean, udal-zerbitzuak abian jartzekoa. 80ko hamarraldiaren azken aldera, tokian tokiko (gertuko) ekipamenduak sortzen hasi ziren, eta hurrengo etapan lurralde guztira zabalduko ziren.

Instituzionalizazio-etapan –milurte berriaren hasierara arte luzatu zen–, kultura-politikak indarra hartu zuen: egitura instituzionalak eta aurrekontuak finkatu egin ziren, eta azpiegiturak sortu. Ekipamenduak eta diru-laguntzak izan ziren etapa horren ezaugarri nagusiak, baita obra handiak ere, Bilboko Guggenheim Museoa buru zela. Kultura modernizatu egin zen, materializatu, bereizi bere gizarte-oinarritik: burgestu egin zen. Kultura-politika koordinatu baten faltan, udalerriek herritarren eskaerekin bat zetozen ekipamenduz hornitzea erabaki zuten. Hurbiltasuneko ekipamendu-sareari (kultura-etxeak, auzo-etxeak, liburutegiak, etab.) toki espezializatuak gehitu zitzaizkion; antzokiak, esaterako. Kasu batzuetan, imitazio hutsez, alboko udalerriak halako bat zuelako.


Hirugarren etapa plangintzaren eta gobernantzaren etapa izan zen. Aldi horretan, herritarrengana ez ezik, kultura-eragileengana eta sektoreetara ere ireki zen kultura. Gobernuek planifikatzeko eta ahotsa eragile guztiei emateko ahalegina egin zuten, eta parte hartzeko kanalak ireki zituzten, parte-hartzea bera leitmotiv egin arte, DSS2016 proiektuan bezala. Tokiko esparrua hirugarren sektorearen parte-hartzerara ireki zen, kultura-programen diseinuan eta kudeaketan.

Eskumenen eremuan, euskal instituzio-sarearen berezitasunak –aldundien zentralitatea da sare horren ezaugarri nagusia– korapilatu egiten du eskumenen banaketa. Kultura-politikan, nahiz eta arau-esparruak (Autonomia Estatutua eta Lurralde Historikoen Legea) nolabaiteko zatiketa planteatzen duen, nahikoa lausoa da banaketa hori. Praktikan, isilbidezko hitzarmen moduko bat dago, zeinaren arabera Gobernua batez ere sorkuntzaz eta ekoizpenaz arduratzen den, aldundiak ondareaz, eta udalak, berriz, zabalkundeaz. Nolanahi ere, konbentzio baten eta esperientziaren fruitu da funtzionatzeko modu hori; horrela, lege-zehaztapenen faltan, kultura-eskumenen konkurrentziak jarduera-esparru nahasgarri eta batzuetan gainjarria sortzen du.

Administrazioaren maila bakoitzak kulturaren alde egiten duen ahaleginaren erakuslea kulturaren egiten duen gastu publikoa da. Hori horrela, euskal administrazioek kulturaren gastatu zituzten 389,3 milioi euro garbietatik, Eusko Jaurlaritzak 77,1 milioi euro finantzatu zituen (guztizko gastu kontsolidatuaren % 19,8); foru-aldundiek 87,3 milioi (% 22,4) eta udalek 224,8 milioi (% 57,8). Besteak beste, bi arrazoirengatik hartzen dute hain konpromiso garrantzitsua esparru honetan: batetik, beren gertutasuna dela eta, zuzenean jasotzen dituztelako herritarren eskariak, eta, bestetik, denetariko kultura-zerbitzuak eskaintzeko duten borondateagatik, legeak agintzen dizkienez gandi.

2.2_ “Hurbiltasun” faktorearen dimentsioak

Hurbiltasun-faktorearen erdigunean, hiru dimentsio biltzen dira: lurraldea, gizartea eta gobernantza.



Lurraldea: Lurraldeak, alde batetik, bere eragin-erradioari egiten dio erreferentzia; ekintzak udalerrietan, auzoetan eta herritarrengandik gertu dauden espazioetan garatzeari. Baina lurraldea ingurunearen eta giza jardueraren arteko elkarreaginaren fruitu ere bada. Hurbiltasuna espazioaren kontzeptu fisiko soil batera murriztu behar ez bada ere, hertsiki dago harekin lotuta. Kontuan izan behar da, gainera, herritarren beharrez gehienak toki-eremuan asetzen direla. Gauza bera esan daiteke beharrez eta esperientzia kulturalaz, globalizazioa eta komunikazio-sistema birtualak gorabehera.

Euskal Autonomia Erkidegoa, 251 udalerrirekin eta 2,2 milioi biztanle ingururekin, lurralde berezia da, banaketari dagokionez. Araba da lurralde handiena eta biztanle gutxien dituen (% 14,7); Gipuzkoan biztanle % 32,6 bizi da; eta Bizkaia da, azkenik, lurralde jendetsuena (% 52,7) eta kontzentratuena, Bilboko metropoliak eratzen duen hiri konurbazioa ia milioi bat biztanle biltzera iristen baita¹.

Biztanleriaren bilakaerari bagagozkio, biztanle gutxien dituzten udalerrietan (10.000 biztanle azpikoetan eta, neurri txikiagoan, 10.000tik 20.000 biztanle artekoetan),

biztanleria ez da hainbeste jaitsi 1981-2001 aldian, eta hazkundea, berriz, handiagoa, XXI. mendearen lehenengo hamarraldian. Hiriburuek ere, Bilbo kenduta, tarteko udalerriek baino hazkunde handiagoak izan dituzte.

Azpitarratu beharrekoa da hurbiltasuna ez dela herri txikien ondare. Izatez, herri txiki bat oso sakabanatua egon daiteke, eta horrek urruntzea eragin dezake. Horrela, bada, hurbiltasuna estrategia gisa gauza daiteke, lurraldea eraginkortasunez antolatzen lagunduko duten ingurune bereziak eraikitzeke. Populazio-eskala txikiak definituz, erraztu egiten da zeharkako politiketan izan dezaketen eginkizuna: hurbiltasunak potentzial handiko abantailak ditu hiria, gizartea eta kultura kudeatzeari begira (Schulmaister, C., 2008).

Gizartea: Hurbiltasuna, bestalde, gizartea egituratzeko faktore ere izan daiteke, gerturatu egiten baititu herritarrak, gero eta desberdinagoak diren garaiotan, haien arteko elkarreaginak erraztuz. Hurbiltasun horrek erraztu egiten ditu interakzio soziala, pertsonen artekoa eta instituzioekiko harremana. Gainera, harreman horien modalitatea aldatzen laguntzen du. Populazioa hurbiltasun-ekipamenduetatik gertu egoteari esker –funtsezko tresnak prozesu honetan, aurrerago azalduko den bezala–, ekipamendu horiek demokrazia esperimintatzeko espazio bihurtu daitezke, herritarren parte-hartzea dinamizatzearen bitartez. Gainera, hurbiltasunak erraztu egiten du erkidego baten parte izateko eta erkidego hori osatzen deneko sentimendua, eta indartu egiten ditu gizarte-kohesioa eta identitate kolektiboa.

Gobernantza: Hurbiltasun-faktoreak, azkenik, mentalitate-aldaketa ez ezik, tresnen eta bitartekoen aldaketa eskatzen dio tokiko gobernantzari. Botere horiek, askotan, eskuordetu egin behar izaten dira; beraz, tokiko aldaketa, ezinbestean, goragoko aginpideek sostengatu behar izaten dute (autonomikoen, estatukoek, estatuaz gaidikoen). Mentalitateak «tokiko gaitasunak sortzea eta tokiko aginpidea autonomiarekin eskuordetzea» ekarri behar du, hala «sinergiak aurki ditzaten kontroleko eta jarraipeneko mekanismoekin, gure gizartearen arazoentzako irtenbideak bilatzeko herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetatik» (Martinell, A., 2014: 9).

Arreta kulturaren eremuan jartzen badugu, hurbiltasunak herritarrengana bideratutako sistema kulturala lortzearekin du zerikusia; herritarrekin harreman aktiboa izatea iragartzen du, ez daitezen subjektu pasibo izan, baizik eta, kulturari dagokionez, norberaren bidea zuzentzeko gai diren eragile. Hurbiltasunak, era horretan, kultura demokratizatzea errazten du –kulturala iristea errazten duelako–, baina baita demokrazia kulturala ere, herritarrak

¹ Eustat erakundetik ateratako datuak. Biztanleen Udak Estadística, 2014ko abendua.



subjektu edo objektu pasibo izatetik (kultura-hartzaile edo -ikusle) subjektu aktibo izatera (sortzaile, kultura-eramaile) bideratzen baititu.

Azken batean, azpimarra daiteke hurbiltasun-politikek lurralde-dimentsio bat dutela, eta, horri esker, zeharkako perspektiba batetik jarduteko gauza direla. Era horretan, kultura-politikak tokiko politika publikoetan zentraliza daitezke. Kultura, izan ere, herritarren politiken funtsezko ardatz bilakatzen da: elementuak ematen ditu gizarte-kohesiorako, aniztasuna defendatzeko, tolerantzia sustatzeko, aberastasuna sortu eta enplegua sustatzeko, ekintza urbanistikorako, heziketa-desberdintasunak ezabatze eta teknologia berrietara heltzeko (Etxebarria, 2005).

2.3 Erreferentzia: Agenda 21

1980ko hamarraldiaren bigarren erdian, garapen jasangarriaren kontzeptua garatu zen. Paradigma gisa, hiru dimentsio zituen kontzeptuak: hazkunde ekonomikoa, gizarte-inklusioa eta ingurumen-oreka. Era horretan, tokiko gobernuen politikei buruzko gogoeta-esparru berria planteatzen hasi ziren, eta hala etorri zen tokiko Agenda 21 sortzeko planteamendua. Gizarte garaikidea islatu nahi baldin bada, ordea, aipatutako hiru zutabe horiek ez lirakeke nahikoa; berezko dimentsioa aitortu behar zaio kulturari; garapenaren moldatzaile gisa eta herritarren jarduteko eraren definitzaile modura. Hala, garapen jasangarria eta kultura erlazionatzen dituen perspektiba berri bat plazaratu da (kultura-sektore propioak garatzea eta politika publiko guztietan aitortzea kultura).

Illo horretan, tokiko gobernuak bestelako garapen-eredu bat sustatzea da xedea: «**gaur egungo beharriaz erantzutea, baina etorkizuneko belaunaldien premiak asetzeko gaitasuna arriskuan jartzeke**, eta kulturara eta bere adierazpenetara herritar guztiek sarbidea izateaz gain, herritarren adierazpen-askatasunerako eta informaziora eta baliabideetara heltzeko eskubideen defentsa eta hobekuntza bermatzea»².

Orduan sortu zen kulturaren Agenda 21; «hirien eta tokiko gobernuen kultura-garapenerako konpromiso baten oinarriak ezartzearen aldeko apustua egin zuen lehengo dokumentua, mundu-bokaziokoak»³. Ikuspegi zehatzagoz, esan genezake kulturaren Agenda 21 hiriek eta herritarrek duten aukera izan daitekeela, kultura udalerrien garapenerako zutabe gisa hartzen duen ikuspegiz sortu ahal izateko. Kulturaren Agenda 21 delakoak 67 artikuluko ditu, hiru atal nagusitan banatuta: printzipioak, konpromisoak eta gomendioak. Honako gai hauek jorratzen dituzte:

- Kultura eta giza eskubideak
- Kultura eta gobernantza
- Kultura, jasangarritasuna eta lurraldea
- Kultura eta gizarte-inklusioa
- Kultura eta ekonomia

Kulturaren Agenda 21ek eskaintzen duen edukiak balio unibertsala du, eta kulturak han eta hemen izan ditzakeen egoeren balizko arazoak eta desafioak planteatzen ditu; kultura bera planteatzen du gizartearen eta politika publikoen oinarritzko eta zeharkako ardatz gisa, hiru kontzeptu giltzarriak sostengatzen dutela: adierazkortasunak, sarbideak eta parte-hartzeak.

Lehenik eta behin, adierazkortasunaren erronka honela ulertu behar da: arte eta sormenezko adierazpenen aniztasunak azaleratzeko nahikoa bide izateko beharrezkoak diren mekanismoen hornitzeko premia, abiapuntuan izanik, betiere, sormena gizaki guztiek berezkoa duten gaitasuna dela. Beharrezkoa da hezkuntzarako sarbidea izatea, horixe baita arte eta sormenezko adierazpenerako behar diren trebetasunak eskuratzeko mekanismoa. Adierazkortasuna, bestalde, kulturartekotasunerako aukera gisa ere ulertu behar da; hau da, kultura-adierazpen desberdinen trukerako eta elkarren ezagutzarako dimentsio modura. Azkenik, aberastasun-iturri eta garapen ekonomikorako motor ere bada.

Bigarrenik, sarbidearen erronka honela ulertu beharko litzateke: kultura-politikek duten gaitasuna, berdintasun- eta unibertsaltasun-printzipioetan oinarrituta kulturarako sarbidea bermatzeko. Horiek horrela, kultura eskueran izateari mesede egiten dioten tresnak dira, besteak beste, hezkuntza, oztupoak murriztea, hurbileko zirkuituak, hurbileko ekipamenduak eta komunikabideak.

Hirugarrenik, parte-hartzearen erronkak erabakiak hartzeko prozesuei eta kultura-ekosistema batekoak diren eragile desberdinen arteko harreman- eta lankidetzeta-sistemei egiten die erreferentzia. Parte-hartzearen perspektibatik, kultura gizarte-kohesioaren eta norbanakoak bere ingurune sozial eta fisikoarekin dituen harremanen zutabeetako bat litzateke. Illo horretan,

² Doc. Kultura, laugarren zutabea dokumentua. Agenda 21

³ AG21_es_ok dokumentua.



globalizazio-prozesuari aurre eginik, erkidego baten parte izatearen sentimendua sendotzea gizarte-kohesiorako elementu giltzarri gisa agertzen da. Ingurune sozial eta kultural batean parte hartzea eta ondarearen balorizazioa sentimendu hori argi eta garbi sortzen eta sendotzen duten faktoreak dira. Bestalde, zerbaiten parte izateari lotuta agertzen da herritarrak espazio publikoarekin duen harremana ere. Parte-hartzearen erronkak, ikuspegi horretatik, prozesu horri ere erantzun behar lioke, espazio publikoa berreskuratzearen bultzatzaile nagusi gisa kultura kokatzen duela.

Kulturaren Agenda 21etik **publikotasuna beste modu batean ulertzen** laguntzea proposatzen da, tokiko gobernuen eta gizarteko aktoreen arteko «konpromisoen» ideian oinarriturik⁴. Konpromiso bakoitzak hainbat ekintza biltzen ditu, eta ekintza horiek orientatzaile dira tokiko gobernuentzat, herritarren parte-hartzean, gobernantzan eta garapenean zentratutako politika publikoen alde egin dezaten. Ildo horretan, honako erronka edo helburu hauek planteatzen ditu⁵:

_ Herritar aktiboak eta kultura-eskubideak erabat aitortuak izatea: pertsona guztiek eskubidea izatea askatasunez adierazpenak egiteko, ondare, balio eta identitateetara iristeko, bai eta kultura-bizitzan aktiboki parte hartzeko ere.

_ Ondarea, aniztasuna eta sormena kultura-bizitza eratzen duten elementuak dira: kultura sortu eta ekoizten aktiboki parte hartzeak komunitate batzuk sortzea ahalbidetzen du, eta pertsona komunitate horietan askatasunez identifikatuta sentitzen da. Hurbiltasunaren eta agerikoaren arteko elkarrizketa berri batetik abiatuta, ezinbestekoa da bikaintasuna eraikitzeko baldintzak sortzea, kultura-politika jasangarriak izango badira.

_ Herritarren aktibotasuna sustatzea, kultura-gaitasunak eraikitzearen poderioz: kultura-garapena prozesu bat da, adierazpen aukerak are gehiago zabaltzera eta ezagutzetara daramana, eta estu-estu lotuta dago hezkuntzarekin eta etengabeko ikaskuntza.

_ Kultura-faktoreak, ingurumen-erantzukizunaren bizkortzaile gisa: garapen jasangarriaren kulturak duen garrantzia aitortzeak kultura- eta ingurumen-alderdien arteko konexioak arakatzera garamatza.

_ Ekonomia jasangarri orok erantzukizun kulturala eskatzen du: ekonomiak, jasangarria izango bada, oinarritzat dituen balioak aztertu behar ditu, eta aintzat hartu behar ditu garatzen den inguruneke kultura-baliabideak. Tokiko baliabideetara egokitu behar du ekonomiak, horietatik baititu bere legimitatearen eta dinamismoaren iturri.

_ Kultura-faktoreek gizarte-lotura berrien garapenera laguntzen diote: kultura- eta sormen-prozesuek inpaktu indartsua dute pertsonen ongizatean, osasunean eta autoestimuan..

_ Hiria eta lurraldea kontzientziarekin eta kultura-zentzuarekin planifikatzea: Hirigintza-plangintza eta espazio publikoak oinarritzekoak dira hirien eta eskualdeen jasangarritasunerako trantsizioan. Kultura-faktoreak esplizituki aintzat hartzen ez dituen hirigintza-plangintzak inpaktu negatiboak ditu ondarea zaintzeari dagokionez, eragotzi egiten du memoria, sormena eta koexistentzia egikaritzea, homogeneizazioa sustatzen du, eta mugatu egiten ditu kultura-bizitzara iristeko eta bertan parte hartzeko aukerak.

_ Teknologia lagungarri dira aniztasunerako eta hiritartasuna eraikitzeko: informazioa iristeko aukerak areagotzea eta ezagutzaren sorkuntzan parte hartzea garapen jasangarriaren oinarritzko baldintzen parte den kultura arloko prozesu bat dira.

_ Tokiko kultura-politiken gobernantza orekatu eta partekaturantz: gobernantzak bai «gobernu ona» eta bai «gobernu partekatua» eskatzen ditu, eta hiru dimentsiotan adierazten da: gobernantza aktore-anitza (sektore publikoa, sektore pribatua eta gizarte zibila), gobernantza zeharkakoa edo horizontala (ekintza publikoaren esparru desberdinak), eta maila anitzeko gobernantza edo bertikala (gobernu-maila desberdinak).

Laburbilduz, kulturaren Agenda 21 kultura-politika publikoek gaur egun dituzten erronkak biltzen dituen esparru-dokumentua da; tokiko gobernuen eta hirien kultura-mailako perspektiba berri batean barneratzea ahalbidetzen die, eta, aldi berean, gobernantza, parte-hartzea eta hirien zein herritarren garapena xede dituen gida bat ere bada.

⁴ Doc. Agenda 21 ekintzak dokumentua.

⁵ Konpromisoek hiri jasangarri baten dimentsio kulturala gorpuzten dute. Hona hemen konpromisoak: kultura-eskubideak; ondarea, aniztasuna eta sormena; kultura eta hezkuntza; kultura eta ingurumena; kultura eta ekonomia, kultura, ekitatea eta gizarte-inklusioa; kultura, hirigintza-plangintza eta espazio publikoa; kultura, informazioa eta ezagutza; kultura gobernantza.

3_ Hurbiltasunaren inplikazioak: kontzeptuak, ekintzak eta tresnak

Kultura-politiken legitimitate-defizitaren aurrean, eta, bereziki, ordezkaritza politikoa zalantzan jartzen dela ikusita, hurbiltasun-faktoreak kultura-mailako ekintza publikoa justifikatzen duten arrazoiak ematen ditu. Hurbiltasuneko kultura-politikek kultura lurraldera egokituta eta modu integralean kudeatzea proposatzen dute, herritarrengandik hurbilago.

Ondoren, hurbiltasun-faktorearekin talka egin dezaketen auziak planteatzen dira, jarduketan esparruan dituen inplikazioak, eta zer tresna erabiltzen diren berorien bitartez hurbiltasun-politikak gauzatzeko.



3.1 Loturiko kontzeptuak

Hurbiltasuna eta kanpo-efektuak

Hurbiltasuneko kultura-politikek kanpo-efektu positiboak sortzen dituzte, hala nola hiri-berroneratzea eta gizarte-kohesioa. Aurreko atalean esan bezala, garapen jasangarriaren laugarren zutabea irizten zaio kulturari; izan ere, garapenaren moldatzailea izateaz gainera, erabakigarria da pertsonen jarduteko moduari dagokionez. Ildo horretan, kulturak zuzeneko erlazioa du giza eskubideekin, gobernantzarekin, jasangarritasunarekin, lurraldearekin, gizarte-inklusioarekin eta ekonomiarekin.

Hurbiltasuna, substantibo edo izenondo gisa

Hurbiltasuna, maiz, erantsitako elementu gisa hartzen da, kultura-politiken osagarri bat balitz bezala, eratorritako kontzeptu legez. Horrela, hurbiltasun-zentroak, hurbiltasun-programak, hurbiltasun-agenteak, eta abar aipatzen dira. Baina hurbiltasuna uler daiteke ez estrategia bezala, baizik eta erdiguneko elementu gisa; kontzeptu substantibo modura, alegia. Orduan hartzen ditu hurbiltasunak zentzua eta indarra.

Hurbiltasuna eta bikaintasuna

Hurbiltasun kontzeptuaz mintzatzean, ez dago aipatu gabe uzterik hurbiltasunaren eta bikaintasunaren arteko ustezko dikotomia. Ez luke horrela izan behar, biek elkar indartzeko gaitasuna baitute. Hala ere, kontuan izan beharrekoa da bikaintasunaren kontzeptura hurbiltzea konplexua gertatzen dela. Eta hori horrela da hark lotuta daramatzan kalitate- eta balio-kontzeptuengatik. Kontzeptu aldakorrek dira; etengabe eraldatzen dira, subjektuaren, testuinguruaren eta diren interesen arabera.

Alde horretatik, askotan sortu dira kultura-ekintzen bikaintasun-gradua hobetuko duten prozesuak gehitzeko edo areagotzeko zailtasunak; edota, besterik gabe, hurbiltasuneko kultura-politiken bikaintasuna aztertzeke ezintasunak.

Kultura-ekintza praktika berriak, batetik, parte-hartze dinamikak sartu izana, bestetik, eta politika horiek sortzen duten gertutasuna indartzea direla medio, zatiketa ematen ari da bikaintasunaren kontzeptuan. Alde batetik, kalitateari, balioari edo garrantziari lotutako nozio tradizionalena nabarmentzen da (jeinu sortzailearekin edo birtuosismoarekin lotzen den kalitatea), eta, bestetik, kolektiboki sortutako ezagutzari lotutako bikaintasuna.

Bikaintasuna ulertzeko modu berri horrek elkarrizketarako edo esperimendatzeko prozesu berriekekin hasia ahalbidetzen du, artista taldeetatik abiatutako sorkuntza nabarmentzen dutenak edo erabiltzaileen kolektiboa gehitzen dutenak. Hala, parte-hartzea funtsezko tresna bilakatzen da kultura-edukia sortzeko. Perspektiba horrek lausotu egiten du hurbiltasunaren eta bikaintasunaren arteko dikotomia, eta bien arteko zubiak eratzen ditu, gertutasunari indarra emanez; aldi berean, ateak irekitzen dizkie agertzen ari diren sortzaile eta artista gazteei eta pentsamolde berriei.

Hurbiltasuna versus zentralitatea?

Hurbiltasunaren beste ezaugarri bat da lurraldean kultura-sareak sortzea errazten duela; hau da, deszentralizatzen laguntzen duela. Baina, bateraezinak al dira zentralitatea eta hurbiltasuna?

Zentralitatea, hemen, azpiegitura eta proiektu handien baliokidea da; ikus-entzuleak andanaka erakartzeko asmoak eta planak dituzten kultura-zentroz ari gara.

Hurbiltasunak deszentralizatzearekin zerikusi handia badu ere, kultura-politikek nahasi egin ditzakete hurbiltasun- eta zentralitate-helburuak, eta hirietarako lehiakortasun-estrategia bilakatu. Edota, kultura-etxeez gainera, ekipamendu espezializatuak dituzten udalerrriak. Ez dira bi eredu horien elkarbizitza-adibideak falta gure ingurunean, hiriburuetatik hasi eta tamaina ertaineko udalerrietara iritsi arte.

Zentralitatea ematen duten proiektuek ez dute zertan izan –eta ez dira, kasu askotan– goi-mailako instituzioek edo etekina ateratzeko asmoa duten erakunde pribatuek antolatutakoak; aitzitik, udalerrriak edo beheragoko beste erakunde batzuk antola daitezke xede horretarako.

Gainera, borondate eta estrategia kontua denez, ezin dezake ezerk eragotzi azpiegitura eta proiektu handiek ere, era berean, hurbiltasuna sustatzea.

Hurbiltasuna ulertzeko modua

Askotan, sarbiderako zailtasun nagusiak oztopo psikologikoetatik datoz. Ikuspegi horretatik, hurbiltasunak izango duen erronka nagusia jendeak politikak benetan hurbilekotzat hartzea eta sentitzea da; hots, herritarrei axola zaizkienak eta ukitzen dituztenak izatea. Auzia, beraz, ez da horrenbeste programa edo ekipamendua hurbileko tokian izatea, baizik eta jendeak gertukotzat hartzea. Gero eta gehiago, espezializatutako ekipamendu handiek edo zentralitatekoek jendeak hurbilekoak, gertukoak eta irekiak direla senti dezaten laguntzeko politikak egiten dituzte.

Hurbiltasuna eta hirugarren sektorea

Hirugarren sektorea hurbiltasunaren arloko aktore garrantzitsuenetako bat da, aktiboki parte hartzen baitu hurbiltasuneko kultura-politiken formulazioan eta politikok gauzatzean. Erkidegoan eta herritar gisa dituzten espazioetan hartzen dute parte, edota hirietako hurbiltasuneko ekipamendu publikoekin zuzeneko lankidetzan.

Sektore horrek agentziaren hedapena sortzen du kultura-ekintzan gizarte-printzipioetatik abiatuta, eta kultura-politikak demokratizatzeke logika baten barruan. Hala, proiektuen edo kultura-ekipamenduen bitartez, etengabeko harremanetan dira herritarrekin, haien parte-hartzea sustatzen dute bai sektorea osatzen duten erakundeen barruan, eta bai kanpoaldean. Fina et al (2011: 23) dioten bezala, «herritarren parte-hartzea erantzukidetasun eta espazio publikoarekiko konpromiso bihurtzen da, erantzuteko eta ingurunea eraldatzeko gaitasun».

Alde horretatik, nabarmentzekoak dira hirugarren sektoreko eragileak, hurbiltasunaren dinamizatzaile, gauzatzaile eta indartzaile gisa, eta ez soilik kulturaren eremuan, esfera publikoko alderdi gehien-gehienetan baizik. Administrazio publikoen eta gizarte zibilaren arteko zuzeneko kanalak dira; eskaerak eta beharizanak biltzen dituzte, eta hurbiltasun-politikak sustatzen, herritarrek hurbileko espazioak izan ditzaten beren garapenerako, adierazpenerako eta ekintzak sortzeko.

3.2 Ekintza motak

Hurbiltasun-politikak, funtsean, kulturarako sarbidea eskaintzera, pertsonen adierazpen-gaitasunak sustatzera, eta zerbaiten parte izateko sentimendu kolektiboari bultzada ematera zuzentzen dira.

Sarbideari dagokionez, kultura-politikek, berdintasun- eta unibertsaltasun-printzipioetan oinarrituta, kulturarako sarbidea bermatu behar dutela kontuan harturik, sor daitezkeen oztopo guztiak ezabatzea zuzentzen da ekintza, kultura hurbilekoa, erakargarria eta bideragarria gerta dadin. Horregatik, hurbiltasun-faktorea elementu giltzarria da mota guztietako oztopoei aurre egiteko. Gertutik soilik ezagutzen dira testuinguruaren eta erkidegoaren ezaugarriak; hurbiltasunak ematen duen ezagupenetik soilik proposa daitezke errealitate horri erantzuten dioten eta berori eralda dezaketen programak eta proiektuak.

Azpiegiturak eta hornidurak sortzeko unea behin igaro ostean –oro har, ekipamendu orekatuak eta kalitatekoak ditugu lurralde osoan–, oraindik ere badira hainbat oztopo, gizarte-arrazoiak medio, kulturarako sarbidean desberdintasunak eragiten dituztenak. Gure gizartea, bere konfigurazioari dagokionez, gero eta konplexuagoa dugun honetan, kultura gizarte-kohesiorako tresna bat da: aukera-berdintasuna sustatzen du ezagutzarako sarbidean, baita desberdinarekiko errespetua eta gizarte-harremanetarako espazioak ere.

Hurbiltasunak pertsonen **adierazkortasuna** sustatzeko duen gaitasunari dagokionez, kontua ez da kultura urruti geratzen zaien publiko horientzat hura irisgarri egite hutsa, baizik eta haiei ahotsa eta adierazteko gaitasuna ematea, jarduera artistikoa inklusiorako eta parte hartzeko eremu bihurtuz.

Gaitasunari eskaintzen dio arreta, eta behar diren tresnak eta bitartekoak jarri behar ditu guztiok berezkoa dugun potentziala azaleratu eta garatzeko. Baldintza egokiak sortzea da kontua, eta hurbiltasuna da horretarako bitarteko onena. Horixe da, hain zuzen, hezkuntzaren eta heziketa artistikoaren lekua, sorkuntzarako espazioena, herri-kulturaren eta arte amateurraren espazioa, pertsonen adierazpen-gaitasuna sustatzen duten forma esperimentalena.

Erkidego baten **parte izanaren sentimendua** indartzeari dagokionez, pertsonak kultura-garapenean integratzeak posible egiten du norbanakoek eta giza taldeek beren historia eta identifikazioari lotutako kontakizunak esploratzea, beren bizitzari zentzu eta esanahi berriak ematea, eta askatasunak hedatzen ditu. Kultura-prozesuak funtsezkoak dira bazterkeria saihesteko eta «inor atzean ez uzteko». Kultura-bizitzan parte-hartze aktiboa

izatea da gizarte-inklusiorako giltzarrietako bat: motibazioa eta trebetasunak ematen ditu gizarte gehiagotan parte hartzeko, ikusgaitasuna ematen die gutxiengoen adierazpenei, eta belaunaldien edo kultura-arte harremanetan talde desberdinek elkar aitortzeko eta lankidetzan aritzeko potentzial handiagoa ematen du, enplegurako aukerak handitzen ditu, eta lurralde baten segurtasuna eta irudia hobetzen ditu, beste batzuen artean.

Kulturaren sormenean eta ekoizpenean aktiboki parte hartzeak erkidego batzuk sortzea ahalbidetzen du, eta pertsona komunitate horietan askatasunez identifikatuta sentitzea dakar. Bitarteko garrantzitsua da kultura topagune berriak abian jartzeko eta esanahi kolektibo berriak garatzeko. Lagungarri gerta daiteke, orobat, gatazkak konpontzeko, gizarte-ehuna sendotzeko, eta talde nahiz erkidegoen erresilientziarako.

3.3 Hurbiltasuneko kultura-politiken tresnak

Hurbiltasuneko kultura-politikak programa eta proiektu bilakatzen dira, hurbiltasun-ekipamenduetan gauzatzen dira fisikoki, eta parte-hartzea sustatzen duten harreman-esparruak eratzen dituzte. Hona hemen horien ezaugarri bereizgarriak.

Programak eta proiektuak

Aurreko atalean deskribatu direnen antzeko hainbat helburu (sarbidea, adierazkortasuna eta zerbaiten parte izatea) dituzten programak eta proiektuak toki-eremuan gauzatzen dira askotan, kultura-ekintza izenaren azpian, eta hauxe dute ezaugarri: ezin direla sektore jakin batean kokatu, eta bokazio soziokultural markatua dutela. Adibide modura, Kulturaren Euskal Behatokiaren EAEko Finantzaketa eta gastu publikoaren estatistikan, izen hori duen atal espezifiko bat dago jasota, non barnean harturik baitaude ekipamendu komunitario eta soziokulturaletatik sustatutako programak, ekipamendu eta kultura-zerbitzu balioaniztunak (gizarte-etxeak, kultura-etxeak...), amateurismoa eta parte-hartze kulturala. 2012an, udalek kulturaren egindako gastuaren % 19 kultura-ekintzara bideratu zuten.

Indarra hezkuntza-heziketan jartzen duten programak dira; herritarren adierazkortasuna edo sormen-gaitasuna sustatzera zuzenduta daude, eta praktika proaktiboak sustatzen dituzte. Kolektibo espezifikoetara zuzendu ohi dira.

Kultura amateurra eta gizarte-bilbea sortzeko beharrezkoa den herri- eta partaidetza-oinarria sustatzeko xedea ere badute, mobilizatze, parte hartze, elkarlanean jarduteko eta eskualdean txertatutako komunitateari kohesioa ematen laguntzeko gai izango dena.

Hurbiltasun-ekipamenduak

Hurbiltasun-politika publikoak gauzatzea ahalbidetzen dute; haien erreferentzia fisikoa dira. Konektatutako baliabideak dituzten ekipamendu-sareak sortzea eta, bereziki, hurbiltasuneko ekipamenduak bermatzea (liburutegiak, kultura-zentroak, kultura-etxeak, gizarte-etxeak, eta abar) ezinbesteko baldintzak dira, baina ez nahikoa, kulturara sarbidea izateko eta hurbiltasuna lantzeko aukera izateko.

Ekipamendu hurbileko, balioaniztun eta zerbitzu publikoen bideratzaile horiek beharrezko erremintak dira herritarren ekintza kolektibo, parte-hartzaile eta sortzaile bilatzeko, baita gizarte zibilarekiko harreman aktiboa mantentzeko mekanismo gisa ere, demokrazia esperimentatzeko espazio modura, eta herritarren parte-hartzea dinamizatze ere, bertaratze pasiboko kultura-aktibitateetatik harago joz eta inplikazio aktiboaren alde eginez. Soziokulturarako espazioak dira.

Alde horretatik, hurbileko ekipamenduak berrikuntza sozialaren eta instituzionalaren, eta gizarte zibilaren eta erakunde publikoen arteko topagune gisa hartu beharko lirateke. Horrenbestez, paradigma berri batetik ikusi behar dira, erakunde publikoak kudeatzeko era berrien esperimenduzko-eremu modura, kudeaketa bidea irekitzen zaiela hala enpresa izaerako erakundeei nola irabazi-asmorik gabekoei. Hau da, zentroen gobernantza eta kudeaketarako ordezko eredu berriak ahalbidetu behar dira, herritarren borondatea erakunde publikoetara artikulatuz eta bideratuz.

Hiru hiriburuek dituzte hurbileko kultura-ekipamendu sareak: kultura-etxeak Donostian, eta gizarte-etxeak bai Bilbon eta bai Gasteizen. Aldagai desberdinak badituzte ere, ezaugarri hauek datoz: auzoetan esku hartzen dute eta haien egunerokotasunean txertatuak dira, balioaniztunak dira –batez ere, kulturalak direnek, erabilera anitzeko espazioak ez ezik, «oinarriko zerbitzuak» dituzte, hala nola liburutegia, erakusketa-aretoa, hitzaldi-aretoa, tailerrak...; zeharkakoagoek, berriz, gizarte-jarduerak eta



herritarren parte-hartze irekiagoa duten jarduerak hartzen dituzte-, heziketa-jardueretan eragiten dute, eta elkarteetan zein eragileen proposamenei bide ematen diete. Izatez, biltzen duen jardueraren parte handi bat kolektibo horiek sustatzen dute.

Udalerri handietan (Barakaldo, Getxo eta Basauri, adibidez), badute aipatutako horien antzeko ezaugarriak dituen beren hurbileko ekipamenduen sarea. Oro har, udalerri ertain eta txikiak ere –oso txikiak salbuetsita– badituzte beren hurbileko ekipamenduak –udalerri bakoitzeko bat, gutxienez–. Hala eta guztiz ere, beroriek eraikitzeke irizpideak gehiago erantzuten dio lurralde-instituzio logikari, biztanle-kopuruari baino.

Harreman-esparruak

Hurbiltasunak kudeaketa-modu berriak planteatzen dituzten herritarren parte-hartze dinamiketara bideratzen ditu kultura-politikak. Programak, zerbitzuak eta hurbiltasuneko ekipamenduak oinarrizko erremintak dira gizarte zibilak erabakiak hartzeko bitartekoak errazteko orduan. Tokiko gobernu era berriak ari dira planteatzen; hirietako lidergoa konbinatzearekin batera, herritarrei aginpidea lagatzen zaie. Horrela, kudeaketa-modu berriek Administrazioaren jarduteko era eta herritarrekin dituen harreman-moduak aldatzea planteatzen dute, eta hurbiltasuna litzateke oinarrizko elementua instituzioak gizarte zibilera irekitzeko, edo, harago joanez, gizarte zibila beren espazio propioa duten kultura-politiketako eragile aktibo izateko. Hitz gutxitan esanda, zerbitzu publikoen legitimazioa haien kalitatetik askoz haratago doa, eta gaur egun zuzenean lotuta dago haiek kudeatzeko moduari.

Ildo horretan, hala ekipamenduek nola erakunde publikoek, honako printzipio hauetatik abiatu behar lukete⁶:

- **Gobernantza**
- **Gardentasuna eta informazioa eskuratzea**
- **Kontuak ematea**
- **Politikak ebaluatzea.**
- **Herritarren parte-hartzea**
- **Etika publikoa**

Behatokiaren **Kultura-ekipamenduen esternalizazioarako eta kogestiorako ereduak**⁷ txostenean ikusten zen bezala, gaur egun kudeaketarako bi joera bereizten dira, Administrazio publikoaren zuzeneko kudeaketa moduetatik harago doazenak. Ildo horretan, esternalizazioa edo zeharkako kudeaketa eta kudeaketa parte-hartzailea bereizten ditugu.

Eredua		Kudeaketa
Zeharkako kudeaketa edo esternalizatua		Kudeaketa eta ustiapena esku pribatuetan daude (enpresak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeak). Administrazio-emakida, kudeaketa interesduna, kontzertua edo ekonomia mistoko sozietatea.
Kudeaketa parte-hartzailea	Kogestioa	Mistoa: Administrazioak eta herritarrek partekatzen dute kudeaketa erantzukizuna. Bi aldeen konpromisoak ezartzen dituen aldi baterako hitzarmena.
	Herritarren kudeaketa	Kudeaketa erakunde baten esku dago. Lankidetzeta-hitzarmen bat ezartzen da.

Testuinguru berri honetan, hurbiltasun-politikek garrantzi handia hartzen dute, berrikuntza sozialaren eta instituzionalaren, eta gizarte zibilaren eta erakunde publikoen arteko topagune bihurtu baitira. Horrenbestez, paradigma berri batetik ikusi behar dira, erakunde publikoak kudeatzeko era berrien esperimentazio-eremu modura; kogestioaren bidea irekitzen zaie hala enpresa izaerako erakundeei nola irabazi-asmorik gabekoei. Hau da, zentroen gobernantza eta kudeaketarako ordezkoko eredu berriak ahalbidetu behar dira, herritarren borondatea erakunde publikoetara bideratuz lan egiteko moduak jarritz.

EAEn ez zaigu falta kogestioen eta herritarren kudeaketaren adibiderik. Lehenengo kasuan, Elorrioko Arriola Kultura Aretoa nabarmentzen da. Oso eredu berritzailea izan zen bere garaian, 1989an jarri baitzen martxan, Arriola Kultura Aretoa Elkarrekin eta Elorrioko Udalak hitzarmen bat sinatu zutenean, ekipamenduaren kudeaketarako. Eredu berbera erabiliko zen gero, Markinan, Uhagon Elkarrekin, eta Azpeitian Agustin Kulturgunearrekin. Herritarren kudeaketari dagokionez, aipatzekoa da Astra Gernika ekimenaren kasua, espazio horretan gizartearen zuzeneko parte-hartzea bultzatzen baita, jabari publikoaren kudeaketan.

⁶ Kaleidos Fundazioa. Red. (2013) «El RE de los equipamientos de proximidad» in Kaleidos Sarearen Barne Laneko Topaketa. Alcobendasko Arte Zentroa. Hemen eskuragarri:

<http://kaleidosred.org/blog/wp-content/uploads/2013/07/Conclusiones-Generales.pdf>

⁷ Kulturaren Euskal Behatokia (abendua, 2012). Kultura-ekipamenduen esternalizazioarako eta kogestiorako ereduak (I). Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz, 2013; Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia



4 Hurbiltasuneko kultura-politika ereduak eta jardunbide egokiak

Jada planteatutakoa kontuan harturik, hurbiltasun-politiken⁸ egungo errealitatea aztertu eta zeinahi ekintza publikoren atzean –dagokion intentzio politikotik eratorria bada– haren garapenerako helburuak definitzen dituzten xedeak edo justifikazioak aurki daitezkeen irizpideari kasu eginik, hurbiltasuneko kultura-politiken ereduak ezartzeko proposamen bat egin daiteke, bi ardatz aintzat hartuta: ekintza mota, lortu nahi den helburuaren arabera, eta hura gauzatzeko bitarteko gisa erabiliko den tresna mota. Atal honetan, jardunbide egokien adibide hautatu batzuk dituzue. Asmo bat bera dute guztiek: gizartea eraldatzea.


⁸ Ikusi Eranskinean hurbiltasuneko kultura-politiken jardunbide egokien adibideak.

4.1 Hurbiltasuneko kultura-politika ereduak

Ereduak ezartzean, sinplifikazio handiegia erortzeko arriskua dago. Atal honen bidez, hauxe lortu nahi dugu: txostenean zehar orain arte azaldutako kontzeptuak erlazionatzea eta zeregin hori modu grafikoan egitea. Hala ere, gogoan izan praktika politikoan indarra askotan ekintza mota batean jartzen den arren, ekintzak ez daudela kontrajarrita, alderantziz baizik: behin baino gehiagotan, osagarri izateko joera dute, elkar aberasten duten jarduketak-multzo baten barruan. Beste hainbeste esan daiteke tresnei buruz.

Azpimarratzekoa da, gaur egungo errealitatea aztertzean, politika-ereduak ezartzea ahalbidetuko duten jardunbide egokiak hautematerakoan, jardunbide horiek programa eta/edo proiektuetan bezala aurki daitezkeela hurbiltasun-ekipamenduetan, eta gobernantza eta parte hartzeko eredu desberdinak har ditzaketela.

Hurbiltasuneko kultura-politikak



1_eredua Sarbide-politikak

Herritar guztien kulturarako sarbidea bermatzeko helburua duten politikak dira. Mota honetako politikan, gizarte osoari hurbildu nahi izaten zaio kultura-eskaintza; hartaz gozatzeko aukerak, hura jasotzeko eta jakintza sortzeko beharrezkoak diren ezagutza eta trebetasun ikasketak eta edukiak deskodetzea zailtzen duten eta, hortaz, kulturara iristea oztopatzen duten langak murriztuta. Horrenbestez, sarbiderako aukerak dira honako hauek: hezkuntza, ekipamenduak eta programak, eta informazio- eta komunikazio-bitartekoen lengoia ezagutza.

Praktikan, mota honetako politikak, kasu gehienetan, erkidego osoari zerbitzuak eta programak eskaintzen dizkieten hurbiltasuneko kultura-ekipamenduak ekarri dituzte.

2_eredua Adierazkortasun-politikak

Politika hauek funtsezko oinarri batetik abiatzen dira: herritarren adierazmen edo sormen-gaitasuna sustatzea. Lehenik eta behin, baldintza egokiak ezarri behar dira, eta herritarrek beharrezko dituzten tresnez hornitu behar dira, guztiok dugun adierazkortasuna azalera atera dadin. Praktika kulturalaren bitartez trebatzea esaten zaio horri. Horrela, trebetasunak sustatzen dira, eta, aldi berean, herritarrekin zuzenean elkarrenergina izaten da.

Alde batetik, kultura-ekipamenduak eta/edo programa kulturalak hainbat espazio sortzeko erabiltzen dituzten politikak nabarmentzen dira; espazio horietan, herritarrek parte har dezakete, eta sormena eta adierazkortasuna gara ditzakete. Estalki beraren azpian bilduta geratzen dira arte-heziketari lotutako jarduketak. Bestalde, azpimarratzekoak dira programa kulturalak garatzeko herritarren parte-hartzetik abiatzen diren politikak.

3_eredua Erkidego baten parte izateko politikak

Mota honetako politikak kultura-egitaketik elikatzen dira beste helburu sozial batzuk lortzeko, hala nola gizarte-integrazioa, gizarte-kohesioa, hiri-berroneratzea eta aukeren sorrera.

Kultura-programak bitarteko bikainak dira gizarte-inklusiorako eta gizartean txertatzeko. Helburu hauek dituzte: elkar ezagutzea, elkar onartzea, talde handiagoak eta/edo menderatzaileagoak direla eta gizarte-bazterketarako arriskuan egon daitezkeen taldeak elkartzea, eta abar. Kultura, eduki artistikoak eta abar erabiltzen dira tresna gisa,

esandako helburua lortzeko. Bestalde, kultura-espazio eta -programen bitartez, lurraldeko espazioak bere onera ekartzeko edo ideiak sortzeko prozesuak, edota aukerak sortzekoak ere, kolektiboak biziberritzekoak, aktiba daitezke.

4.2_Jardunbide egokien hautaketa

Jardunbide egokiak diren edo ez haztatzeko orduan, oinarri gisa hartu behar da politika horiek bai programa eta/edo proiektuetan eta bai hurbiltasun-ekipamenduetan zehazten direla, eta kudeaketarako eredu edo harreman-esparru jakin bat izaten dutela. Gainera, ikusi dugun bezala, hurbiltasuna hainbat modutan gauza daiteke, alderdi batzuetan edo besteetan eraginez.

Horregatik, ondorengo sailetan, hainbat kasu aztertzen dira, arrazoi bategatik edo besteagatik nabarmentzen direnak edo berrikuntzak dakartzatenak bi ardatzen inguruan: ekintza motak eta erabilitako tresnak. Laburpen-koadroan, profil bakoitzetik hautatutako kasu bana aurkezten da. Eranskinean, beste adibide interesgarri batzuk ere bildu ditugu.

	Ekipamenduak	Proiektuak	Harreman-esparrua
Sarbidea	Kultura-sarbidea (Montreal)	Lehentasuneko eremu eta lurraldeetako eraldaketa eta praktika kulturalak (APIS) (Bogota)	Kursaal, espai d'arts escèniques (Manresa)
Adierazkortasuna	Zaragoza activa	Scarpia. Ingurune naturaleko eta hiri-ingurune esku-hartze artistikoen jardunaldiak (El Carpio)	Ateneu Popular 9Barris (Bartzelona)
Zerbaiten parte izatea	Liburutegi Parkeak (Medellin)	AndoEnredando proiektua (Torre-Pacheco)	La Kalle Kultura-Elkartea (Vallecas)

4.2.1_Sarbide-politikak

A_Ekipamendua

Montreal - Kultura-sarbidea

Kultura-sarbideak probetxua ateratzen dio kultura-adierazpenak zabaltzeko existitzen den ekipamendu-sareari. Ekipamendu horiek espazio balioaniztunak dituzte eta, beren mailgutasunari esker, badago eskaintza auzo bakoitzaren errealitatera egokitzea. Programa horren barruko programazioa doakoa izaten da beti, eta hainbat diziplina eszeniko eta erakusketa hartzen ditu barnean. Hiriaren eta haren barrutien bitartez egiten da zabalkunde kulturala.

B_Programak/Proiektuak

Bogota – Lehentasuneko eremu eta lurraldeetako eraldaketa eta praktika kulturalak (APIS)

Proiektu hau diru-laguntzetarako deialdi bat baino zerbait gehiago da, etengabeko laguntasuna eskaintzen baitie hornikuntza ekonomikoa eman zaien haiei. Laguntasun hori profesionalen osatutako diziplinarteko talde batek gauzatzen du, eta haiek arduratzen dira proposamen artistikoak eta kulturalak egin dituzten taldeak hezteaz eta prestatzeaz, proposamenak gara ditzaten.

C_Harreman-esparrua

Manresa – Kursaal, espai d'arts escèniques

Kursaal proiektua eredu misto batek kudeatzen du: udalerriko espazio eszenikoak kudeatzeko xedez sortutako enpresa publiko batek (Manresana d'Equipaments Escènics edo MEES) eta El Galliner kultura-elkartek.

El Galliner elkartea izan zen Kursaal antzoki-auditoriumaren inaugurazioa bultzatu zuena, eta bera arduratzen da, gaur egun, ekipamenduko programazio egonkorraz. Hiriko kultura-programazioan zuzenean parte hartzen duten hainbat boluntarioz osatutako erakundea da.



Proiektua, hala ere, ekipamendua (Kursaal antzokia) berroneratsetik eta kudeatsetik harago doa. Erakundeak, udalarekin adostutako akordio baten indarrez, hainbat aholku-batzorde sortu ditu antzerkiaren, dantzaren eta musikaren eremuan, eta beroriek arduratzen dira udalerriko kultura-programazioa prestatzeaz.

Aholku-batzorde horiek aldizka biltzen diren hainbat erakunde, aditu, aktore eta musikariz osatuta daude; azken batean, udalerriko programazio eszenikoan eta musikalean parte hartzeko bitarteko bat dira.

4.2.2_Adierazkortasun-politikak

A_Ekipamendua

Zaragoza – Zaragoza Activa

Zaragoza Activa proiektuan, Las Armas ekipamendua nabarmentzen da, zeinak sormenezko ekonomiari buruzko kluster bat eskaintzen dien herritarrei eta artistei. Era horretan, beren proiektuak garatzearekin batera, merkataritza-gune banatu modura lan egin dezakete, San Paulo auzoa ekonomikoki, sozialki eta kulturalki dinamizatuz.

La Azucarera ekipamendutik, ideia-mintegia eta ezagutzak zein sorkariak garatzea eta partekatzea ahalbidetzen duen gazteentzako liburutegia azpimarra daitezke.

B_Programak/Proiektuak

El Carpio – Ingurune naturaleko eta hiri-ingurune esku-hartze artistikoei buruzko jardunaldiak

Scarpia proiektua arte publikoarekin, parte-hartzailearekin, arte sozialarekin, eta izadian esku hartzeko proiektuekin lotutako irakaskuntzak eta esperientziak aztertzen eta praktikatzan dituen arte-erakusketa bat da, urtero El Carpio hirian egiten dena.

Proiektuaren gauzatze-prozesuan, espazio publikoa artistei lagatzen zaie, beren sorkariak erakutsi ditzaten eta in situ sor dezaten. Kulturaren, espazio publikoaren eta gizartearen inguruan gogoeta egiteaz gainera, udalerriko bizilagunek sorkarietan parte hartzeko aukera dute, proiektuan aurreikusitako ekintza asko tokiko biztanleen parte-hartzea medio gauzatuak izateko pentsatuta baitaude; horretara, herritarren, artisten eta sorkuntza-prozesuen arteko elkarrekin presentzia handia du proiektuan.

C_Harreman-esparrua

Bartzelona – Ateneu 9Barris

Ateneu 9Barris proiektuari dagokionez, bere kudeaketa da deigarriena, modu komunitarioan kudeatutako udal-ekipamendua baita. Herritarrek kudeatzen dituzte ekipamendua eta jarduerak, Bidó de Nou Barris elkartearen eta Ateneu delakoan kokatutako beste zenbait elkarte eta kolektiboren bitartez.

Administrazio publikoekin adostu ondoren, hainbat akordio garatu dira herritarren kudeaketaren esparruan, udal-jabetzako ekipamendua kudeatu ahal izateko.

Bai erabakiak hartzea eta bai jarduerak gauzatzea parte-hartzearen bitartez kanalizatzen dira. Ondorengo hauek dira finkatutako parte-hartze kanalak:

- Ateneuko batzarra.
- Bidó de Nou Barris Kudeaketa Batzordea.
- Eduki batzordea: batzorde artistikoa, programazio batzordea, prestakuntza eta zirku sozialeko batzordea, komunikazio espazioa, batzorde teknikoa.
- Unean-uneko Lantaldeak.

4.2.3_Zerbaiten parte izateko politikak

A_Ekipamendua

Medellin – Liburutegi Parkeak

Giza garapen indize apalena duten auzoetan daude kokatuta Liburutegi Parkeak. Proiektua sortzen ari zen bitartean, hiriaren errealitatea aztertu zuten, eta erabaki zuten auzo horietan kokatu behar zirela ekipamendua, berroneratze soziala eta kulturala egiazkoak izan zitezkeen. Pentsatu zuten hala izan ezean ez zela eragiterik lortuko aukera-premiarik handiena zuten pertsonen artean.

Ekipamendu horiek ez dira asmatu liburu-dukiontzari soilak izan daitezkeen, baizik eta zentro kultural izateko: kultura-funtzioak bete behar dituzte, aisialdikoak, hezkuntzakoak, denbora-pasakoak, heziketakoak eta komunitate behartsuenei zuzendutako sostengu-funtzioak. Gizarte-errealitatearekin konektatutako zonako zentralitateak izan daitezkeen planteatu dira, eta erkidegoari garapen aukerak eskaintzea nahi da, dituen beharrezan arabera.

Trukerako eta ezagutzarako espazio horien sorkuntzak bide ematen die auzotarrei lehen posible ez ziren edo, behintzat, aurrez planteatu gabeko aukera berriei ateak irekitzeko.

B_ Programak/Proiektuak

Torre Pacheco – AndoEnredando

AndoEnredando proiektua dibertsitaterako film laburren jaialdi bat da, baina, bere zeregin integratzaileaz eta jokabide diskriminatzaileen prebentzioan betetzen duenaz harantzago, ez bairik gabe sorkuntzara bideraturiko alderdia du. Sorkuntzan oinarrituta landu daitezke udalerriko komunitate desberdinen arteko diskriminazio eza eta integrazioa.

Eratutako tailerrei esker, gazteek sorkuntzarako hainbat erreminta ezagutu ditzakete, nahi dutena sortu eta adierazi dezaten film labur edo ziberserieen bidez. Horretarako interesa duten gazteek spot sozialak sortzeko tailerrak, interpretaziokoak, karakterizaziokoak, diseinu eta serigrafiaokoak, diseinu eta modakoak eta abarrak egin ditzakete.

C_ Harreman-esparrua

Vallecas – LaKalle kultura-elkartea

Vallecasko (Madril) irabazi-asmorik gabeko elkarte da, garapenaren alde lan egiten duena, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren pertsonen integrazioa bilatuz. Parte hartzea gizarte demokratikoaren eskubide eta betebeharrak gisa ulertzen dute. Irizten diote parte-hartzea egikaritzuz (jarduerak antolatuz, norberaren prozesua eraikiz, erakundearen bizitza eraikiz) ikasten dela parte hartzen; era horretan, gainera, zerbaiten parte direneko sentimendua sortzen da.

Erakundea bere aktibitate propioak gauzatzen ditu baliabideak sortzeko, eta ez dago urteroko diru-laguntzetarako deialdien mende soilik: epe luzeko zerbitzu-kontratuak eta lankidetzak-hitzarmenak ditu Administrazio publikoarekin eta gizarte-erantzukizunean konprometitutako enpreekin.



5_ Ondorio gisa

Lan honi ekin genionean, lehenik eta behin modu orokorrean begiratu genion hurbiltasun-kontzeptuari. Hurbiltasun-faktorea ez dagokio kultura-politikari soilik; aitzitik, zeharkako faktorea da tokiko gobernantzan.

Hurbiltasun-faktorea da tokiko politikan paradigma-aldaketa ulertzen laguntzen duena. Nolabait ere, aldaketa hori R. Inglehart eta C. Welzel-en (2006) terminoekin adieraz daiteke: nolabaiteko mugimendu bat marrazten da tokiko politika inspiratzen duten balio materialistetatik –gai ekonomikoetan eta Administrazioaren ingurukoetan arreta jarri– post-materialista izeneko aldarrikapenei leku egiten dieten esku-hartzeetara –autonomia eta autoadierazpena azpimarratzen direla–.

Hurbiltasun-faktorearen zeharkakotasuna agerian geratzen da, orobat, hiru dimentsiotan duen eragina ikustean: lurraldean, gizartean eta gobernantzan. Hiru dimentsio horien artean ezartzen diren erlazioek definitzen dituzte hurbiltasun-faktorearen zentzua eta potentzialtasunak. Administrazioaren eta herritarren arteko distantzia fisikoak eta sozialak murriztu egiten dira, eta pertsonak beren lurraldeko bizitza sozial, politiko eta kulturalaren partaide, subjektu aktibo eta, nolabait, erantzule bilakatzen dira.

Egia bada ere hurbiltasuna ez dela guztiz alderdi berritzailea, kultura-politikak, 1960ko hamarralditik aurrera (Europar), makro-maila harturik, botere zentralizatzailea ahalbidetzen eta egikaritzen zuten azpiegitura handien garapenean zentratu ziren. Joera hori alderantzikatu egin zen 80ko hamarraldiaren inguruan, eta, hala, hurbiltasunaren aldeko erreakzioa nagusitu zen. Berrikuspen historikoa lagungarri zaigu, horri esker uler baitezakegu hurbiltasun-faktoreak paradigma-aldaketa bat dakarrela, helburu tradizioaletan (kultura demokratizatzea) lanean – eta horietan sakontzen– jarraitzeko. Baliagarria zaigu, berebat, indarra hurbiltasuneko kultura-politikek eragin dezaketen demokrazia kulturean eta kanpo-eragin positiboetan jartzeko.

Bestalde, ikusi dugu zer harreman dituen hurbiltasunak faktore horiekin (kulturarako sarbidea eta aukera- eta gaitasun-berdintasuna) eta gai honetarako garrantzi handia duten beste hainbatekin. Aipatu dugunez, arrazoi sendorik ez dago bikaintasuna eta hurbiltasuna bateraezinak direla pentsatzeko; hurbiltasuna eta zentralitatea ere ez diren bezala. Lehen begiratuan itxura hori eman dezaketen arren, pare horiek ez dira, inondik ere, kasu antagonikoak, eta jardunbide egokietan nabarmengarriak dira hurbiltasuna eta bikaintasuna (Medellingo Liburutegi Parkeak) edo hurbiltasuna eta zentralitatea (**Le voyage à Nantes**) konbinatzen dituzten kasuak.

Azkenik, hurbiltasunari gagozkiola, ez dezagun ahantzi hirugarren sektorea, bere DNAn baitarama hurbiltasuna. Alde horretatik, hirugarren sektoreko eragileek, kulturaren esparruan ez ezik, esfera publikoaren arlo gehientsuenetan dinamizatzen, gauzatzen eta potentziatzen dute hurbiltasuna.

Hurbiltasun-faktorearen alderdi desberdinak ikusi ondoren, hurbiltasuneko kultura-politiken eredu batzuk zehaztu ditugu, egun dauden programak eta/edo proiektuak nolabait sailkatzeko. Esan dezagun definitutako ereduak ez direla elkarrekiko baztertzaileak. Nahiz eta ekintza politikoan eredu bakar batean zentratu ohi den begirada, politikek hiru ereduaren alderdiak jasotzen dituzte.

Lehen ereduak kulturarako sarbidea aldeztu duten politikan zentratzen da; bigarrenak, arreta adierazkortasunari jartzen diola, sorkuntza sostengatzea xede duten proiektuak eta herritarren parte-hartze dinamikak gehitzen dituztenak hartzen ditu barnean. Parte-hartze hori bi modutara uler daiteke: herritarri artistarekin interakzioan aritzeko aukera emanez, sormen-prozesuan parte hartzen duela; edota ekipamenduak eta/edo programak sortzeko eta egikaritzeko funtsezko ardatz gisa. Azkenik, hirugarren ereduak erkidego baten parte izateko sentimendua indartzen duten kultura-politikak aurkezten ditu, efektu erantsi batekin: zenbait kolektiboren diskriminazioa edo bazterketa saihesten dute, gizarte-kohesioa eta -integrazioa bultzatzen dituzte, eta errealitatea eraldatzen dute, gizarte-dinamikak aldatuz.

Erdietsitako kontzeptu teorikoetatik eta ezarritako eruedetatik abiatuta, hurbiltasuneko kultura-politiken zenbait alderdi giltzarri identifika daitezke. Alderdi giltzarri horiek nazioko eta nazioarteko errealitatea aztertzea ahalbidetu dute, eta, hautatutako jardunbide egokietan, politika berriak aztertzeke eta formulatzeko puntu azpimarragarriak hautemateko bidea eman digute.

Ekipamenduei dagokienez, berriz, ikusi dugu balioaniztasuna mesedegarria dela berorien irisgarritasunerako, bai eta dauden lekuko eskaera eta beharriazetara egokitutako programazio askotarikoa osatzeko ere. Ildo horretan, lurraldeko errealitatearen alde aurreko azterlana nabarmendu nahi dugu, horrek ahalbidetzen baitu ekipamenduak leku espezifikoetan kokatzea; era horretan, demokratizazio kulturalari ez ezik, inguruan duen errealitatearen eraldaketa sozial eta kulturalari ere mesede egiten zaio. Aldi berean, azpimarratzekoa da herritarren parte-hartze dinamikien bitartez sortu eta egikaritu direla halakoak. Ekipamenduen erabiltzaile izango diren herritarrek gehitzean, zerbaiten parte izateko sentimendua eta ekipamenduarekiko hurbiltasuna aldeztzen dira.

Alde horretatik, aipatzekoa da proiektuak era mistoan kudeatzeko aukera ere, edota kudeaketa komunitatearen esku uztekoa, hala herritarren parte-hartzea zuzeneko baita, eta irabazten ateratzen baitira eraldaketa soziala, komunitatean ezarritako dinamikien aldatketak, irisgarritasuna, eta abar.

Nabarmentzekoa den beste alderdi bat hau da: hurbiltasun-ekipamenduetan edo politikak txertatzean pertsona espezializatuak eta/edo bitartekariak izatea, herritarren beharriazetara erantzuteko modua eskaintzeko. Bitartekari-profil hori positiboa izan da gizarte-integrazioari dagokionez, eta, gainera, errealitatearekin zuzeneko harremanean izanik hura ongi ezagutzen duenez, ekipamenduen programazio kulturala egokitzea izan du, hala herritar gehiago etorri da eta parte-hartzea handiagoak izan da. Beraz, gizarte-kohesioari ez ezik, kulturarako sarbideari ere egin zaio mesede.

Aztertutako jardunbide egokietan azpimarra daitekeen beste kontu bat artistekin interakzioan aritzeko eta sorkuntza-prozesuetan parte hartzeko aukera da; izan ere, sorkuntza, ezagutzak eskuratzea eta ezagutzen eraikuntza kolektiboa lagungarri izan dira herritarren adierazkortasuna aldeztzeko eta gizarte-errealitatea eraldatzeko. Herritarrek espazio publikoan eta gai publikoetan parte hartu duten momentutik, beren buruez dituzten perspektibak eta usteak hobetu eta indartu egin dira; horrela, bada, ziren aukerak eta aurrera begirakoak ugaritu egin dira.

Amaitzeko, eta adierazi dizuegun guztia aintzat hartuta, ondoriozta genezake hurbiltasuna funtsezko elementua dela kultura-politikak garatzeko eta aplikatzeko, politika horiek herritarrengan zuzeneko eragin positiboa izango badute. Baina esan dezagun, orobat, hemen azaldutako neurriak, edo beste batzuk, ezin direla akritikoki toki batetik bestera lekualdatu; aitzitik, garatuko den testuingurura egokitu beharko da kultura-politika oro.

6 Aipatutako bibliografia

Barbieri, N.; Fina, X.; Subirats, J. (2012): «Culture and Urban Policies: Dynamics and Effects of Cultural Third Sector Interventions in Barcelona», in Revue Métropoles, 11, 2-18 or. Hemen eskuragarri: https://ddd.uab.cat/pub/artpub/2012/111397/Metropoles_Barbieri_a2013n11iSPA.pdf

Centre d'Estudis i Recursos Culturals (CERC) (2006): «Documentación aportada por los ponentes de experiencias» in Interacció '06. Políticas culturales de proximidad, Bartzelona, Bartzelonako Diputazioa, 2006ko urriak 24-27. Hemen eskuragarri: <http://media.diba.cat/diba/html/cerc/Interaccio06castella/Experiencias%20ponencias%20cast.pdf>

Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak. «La cultura es el cuarto pilar del desarrollo sostenible». Bartzelona: Ajuntament de Barcelona. Institut de Cultura. Hemen eskuragarri: <http://www.agenda21culture.net/index.php/ca/documents-cat/4th-pillar-cat>

Etxebarria, M. (2005). «¿Qué significa la Agenda 21 de la cultura para la vida municipal?». VI. Kultura eta Udalerria Mintegian aurkeztutako txostena. Agenda 21: Kultura-garapena/Tokiko garapena. Jerez de la Frontera, 2005eko martxoaren 31 eta apirilaren 1a. Hemen eskuragarri: <http://www.agenda21culture.net/index.php/bg/docman/articles/136-etxebarriafampjerez/file>

Fina, X. (zuz.); Subirats, J. (zuz.); Barbieri, N.; Partal, A.; Merino, E. (2011): Proximitat, cultura i tercer sector a Barcelona, Icaria: Bartzelona.

Kaleidos Fundazioa. Sarea. (2013) «El RE de los equipamientos de proximidad» in Encuentro de Trabajo Interno de la Red Kaleidos. Alcobendasko Arte Zentroa. Hemen eskuragarri: <http://kaleidosred.org/blog/wp-content/uploads/2013/07/Conclusiones-Generales.pdf>

Inglehart, R. eta Welzel, Ch. (2006): Modernización, cambio cultural y democracia: La secuencia del desarrollo humano. Madril: CIS. Monografiak; 231.

López de Aguilera, I. (2005): «Nuevas prácticas de gestión cultural municipal» in Kultura Politikei buruzko Nazioarteko I. Biltzarra, Bilbo, 2005eko azaroaren 14 eta 15. Hemen eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-6614/es/contenidos/informacion/conferencia_politica_culturale/es_10312/adjuntos/ponencia_aguilera_cas.pdf



Martinell, A. (2014): «Agenda 21 de la cultura – Comisión de cultura de Ciudades y Gobiernos Locales Unidos (CGLU)». Hemen eskuragarri: <http://www.nueva.agenda21culture.net>

Kulturaren Euskal Behatokia (2012): «Kultura-ekipamenduen esternalizaziorako eta kogestiorako ereduak (I)». Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_publicaciones_ekipamenduak/eu_def/adjuntos/kultura_ekipamenduak_2012.pdf

Kultura-praktiketako ikerkuntza plataforma. «Políticas culturales de proximidad» in Pedagogías y redes instituyentes. Hemen eskuragarri: <https://redesinstituyentes.wordpress.com/glosario-y-referentes/politicas-culturales-de-proximidad/>

Rius, J. (2014): «Modelos de política cultural y modelos de equipamiento culturales: de los modelos nacionales a los modelos locales. Análisis del caso de Barcelona», in Política y sociedad, 2. zk., 399-422 or. Hemen eskuragarri: <http://revistas.ucm.es/index.php/POSO/article/download/41582/43672>

Sen, A. (2005): «Human Rights and Capabilities» in Journal of Human Development, 6 (2): 151-166 or.

Schulmaister, C. (2008): «La gestión sociocultural en ciudades pequeñas». Hemen eskuragarri: <http://www.gestioncultural.org/ficheros/CSchulmaister-GestionSociocultural.pdf>

Eranskina.

Jardunbide egokiak

Jardunbide egokiak esperientzia-trukerako espazioetatik eta praktika kultural onak dituzten edo izen oneko erakundeetatik bildu ditugu, hala nola kulturaren Agenda 21, Fundazio Garaikideko esperientzia-trukeetako txostenak eta Kreanta Fundazioa.

Hautaketa egiteko, honako irizpide hauek hartu ditugu kontuan:

1. Denboran zehar izan duten bilakaera (programak zenbat urtez mantendu diren, izan dituzten emaitza onak medio).
2. Lurraldean izandako eraginkortasuna eta inpaktu positiboa.
3. Gizarte-integrazioarako gaitasuna, gizarte-bazterkeriari aurre hartzekoa, eta hainbat kolektiboren arteko harremana.
4. Herritar guztiei kulturarako sarbide doakoa eta eraginkorra ematea.
5. Kultura-politiken gobernamentua: herritarren parte-hartzea, herritar aktiboak.
6. Sarean lan egitea udalerriko kulturaren inplikaturako eragileekin.
7. Gizarteko, lurraldeko eta kultura arloko dinamizazioa.

Ondoren, kasu bakoitzari dagokion fitxa aurkituko dugu, non informazio zabalagoa ematen den.

1_ Eredua. Sarbide-politikak

A_ Ekipamenduak

Montreal

Kultura Sarbidea

Programa / ekipamendua → Hurbiltasuneko ekipamendu-sarean sostengatzen den programa: Kultura-etxeak.

Helburuak → Montrealgo biztanleen kulturarako sarbidea segurtatzea eta herritarren parte-hartzeari laguntzea kultura-bizitzan.

Deskribapena → Montreal hiriko kultura-etxeak hurbiltasuneko instalaziotzat hartzen dira, hiriko auzoetan kokaturako zabalkunde zentroak direnez; espazio balioaniztunak eta diziplina askotakoak dira, eta zabalkunde kultural profesionalari eskainitakoak dira. Zentro horiek, beste kultura-erakunde batzuekin alderatuta, bestelako programazioa eskain dezaten planteatu da; auzo bakoitzaren errealitateara egokitutako doako programazioa, alegia.

Esandako zentro hauek eta hainbat proposamen artistiko kulturaren irisgarritasunaren aldeko udalaren ekimen berri baten bultzada dira: kultura-zabalkunderako sarea (Kultura Sarbidea).

Kultura Sarbidea arte eszenikoak eta ikusizkoak zabaltzea xede duen programa bat da, eta hiriko barruti guztietan aurki daitezkeen 24 udal-arduradun biltzen ditu. Arduradun horiek ikuskizun profesionalak eta ikusizko arte erakusketak osatutako diziplina askotako programazioa eskaintzen diete herritarrei.

«Sareari indarra ematen diona zabalkundeaz arduratzen den udal-langile bakoitzaren programazioen espezifikotasuna da. Programazio horiek herritarren interesek, tokiko taldeen esperientziak eta eskola eta kultura-inguruneekiko lankidetzaren sendoez markatuta daude, aldi berean barrutietako leku eta instalazioetara egokitzen direla. Sareak zabalkundeaz arduratzen diren udal-langileak biltzen ditu. Pertsona horietako bakoitza bere komunitatean errotuta dago, eta bai biztanleriaz eta bai artistez kezkatzen da.»⁹

Programa honetan sartzen dira, orobat, artisten egoitzak eta kultura-artekaritza.

2007an, hiriko eta barrutietako ordezkariak misio bat landu zuten guztien artean, Kultura Sarbidea kultura-zabalkunderako udal-sarearen ekinbidea orientatzeko: «Kultura-zabalkundeari dagokionez, Hiriaren eta bere barrutien egitekoa Montrealgo biztanleei kulturarako sarbidea bermatzea da, demokraziaren eta ekitatearen printzipioetan oinarrituta, eta herritarrek kultura-bizitzan parte har dezaten erraztea, horrela haien ingurunea biziberritzeko eta Montreal metropoli kultural gisa proiektatzeko».¹⁰

Sareak honako hauek ditu:

- _24 lagun, kultura-zabalkundeaz arduratzen direnak
- _60 espazio zabalkunderako
- _80 lagun, zabalkundeaz aritzen direnak
- _200 erakusketa urtean
- _2.000 ikuskizun urtean
- _Milaka artista
- _600.000 ikusle eta bisitari urtean

Zer publikori zuzentzen zaion → Montrealgo biztanle guztiak.

Madril

Liburutegi Irekia ¹¹

Programa / ekipamendua → Hiriko liburutegi publikoetan gauzatzen den programa.

Helburuak → Etorkinen integrazioa erraztea, eta kolektibo horretan liburutegi publikoen erabilera sustatzea.

Deskribapena → Liburutegiak zerbitzu eleaniztunez eta kultura-arteko bitartekari elebidunez hornitzea aurreikusten da programan, espazio publiko inklusiboa sortzeko eta datozen komunitate berriei ongi-etorri sentsazioa emateko.

Iritsi berrien integrazioa erraztea bilatzen da; hasieran, hizkuntza-oztopoetan zentratu zen, bilduma eleaniztun berriak eta zerbitzu berriak gehituz, hala nola gaztelaniazko eskolak, oinarritzko heziketa informatikan, etab. Lehenago inoiz halakorik erabili ez duten etorkinek liburutegi publikoak erabiltzea sustatzeko, kultura-arteko 275 bitartekari elebidun baino gehiagorengana jo da. Kulturen arteko interakzioa errazten duten liburutegien jardueretan sartzen dira gizarte-ekitaldiak, haurtzako tailerrak, erakusketak...

Zer publikori zuzentzen zaion → Populazio migratzaile iritsi berriari, liburutegiak erabiltzen ez dituenari.

Madrilgo Udala. Arteen Gobernu Eremua. «Hacia el Plan Estratégico de Cultura del Ayuntamiento de Madrid 2012-2015». Hemen eskuragarri: http://www.madrid.es/UnidadWeb/Contenidos/EspecialInformativo/TemaCulturaYOcio/Cultura/PECAM/HaciaPECAM/Ficheros/Pdf_completo_20812ok.pdf

¹⁰ Ibid.

¹¹ The Maytree Foundation (2012): «Buenas ideas de ciudades trinfadoras. El liderazgo municipal en la integración de los inmigrantes. España.» Hemen eskuragarri: http://citiesofmigration.ca/wp-content/uploads/2012/03/Municipal_Report_Main_Report_Spanish.pdf

Buenos Aires

Kultura-Programa Auzoetan (1984)¹²

Programa / ekipamendua → Buenos Airesko Hiri Autonomoko Kultura Ministerioak sustatutako programa, hurbiltasuneko ekipamenduetan gauzatu dena.

Helburuak → Kultura-Programa Auzoetan delakoa hiriko biztanle guztiei kultura-ondasunetarako eta zerbitzuetarako sarbidea eraginkortasunez eta doan sustatzeko eta bultzatzeko helburuarekin sortu zen¹³.

Deskribapena → Programak bi eginkizun ditu: bokazioak esnatzea (kultura-zentroek erremintak transmititzen dituzte, arteen munduan garatu ahal izateko) eta babes artistikoa ematea (auzoko herritarren topagunea).

Kultura-zerbitzu eta -ondasun guztiak auzoetara deszentralizatu dira. Kultura Sustapeneko zuzendari nagusiaren esanetan, «auzoetara iristeak jendeagandik hurbilago egotea esan nahi du. Kultura gizarte baten espiritua da.»

Proiektu hau duela hogeita hamar urtetik hona da abian; inimizazio-jarduerak, prestakuntzakoak eta ekoizpen artistiko eta kulturakoak ematen ditu hainbat diziplinan.

Zer publikori zuzentzen zaion → Proiektua artista finkatuei eta hasi berriei bideratuta dago, eta baita artista ez direnei ere. Topagune baten bila dabilatzenei, helburu erkide bat bilatzen dutenei, beren eguneroko bizimoduan beste jomuga batzuk bilatzen dituztenei.

Buenos Airesko Gobernua. «Programa cultural en barrios». Hemen eskuragarri: <http://www.buenosaires.gov.ar/cultura/promocion/programas/barrios>

Rio de Janeiro

CineCarioca

Programa / ekipamendua → Morar Carioca (bizi Karioka) Gizarte Programaren esparruan kokatutako proiektua.

Helburuak → Proiektuaren helburuak eta jomugak dira¹⁴:

- _ Zinemarako sarbidea handitzea eta zinera joateko ohitura sustatzea.
- _ Hiriko kultura-eskaintza orekatzea, lurralde osoan.
- _ Gizarte-inklusioa eta lotura komunitarioak bultzatzea.
- _ Hiria eraldatzea, kultura-espazio publikoak garatzearen bidez.

Deskribapena → CineCarioca **Alemaniarren Gunean** kokatutako proiektu bat da; hots, Complexo do Alemão **favela** delakoan, non narkotrafikatzaileek presentzia handia duten. 2010ean, Polizia Bakegilearen Unitateak okupatu egin zuen **favela**, lurraldearen kontrol juridikoa eta instituzionala berrezartzeko. Une horretatik aurrera, gunea **Morar Carioca** (bizi Karioka) programa sozialean parte hartzen hasi zen; hau da, **favelak** formalizatzeari ekin zitzaion, azpiegitura-, etxebizitza- eta hirigintza-plangintza zerbitzuetan inbertitzearen bidez.

CineCarioca proiektua programa horren baitan diseinatu zen. Hona zer xede eman zioten proiektuari: «adimen sortzaileak lantzea eta kulturen baieztapena sustatzea giza dimentsioan, ekonomikoan, politikoan eta sozialean. Proiektuak kultura-arteak eta elkarrizketa-erperientzia bat sortzen du, zeina tresna bihurtzen den gizarte-inklusiorako, publiko berria erakartzeko eta kulturaren parte hartzea babesteko»¹⁵.

Zinemarako sarrerak udal-administrazioak diruz laguntzen dituzenez, haien prezioa dezente merkatzen da, eta faveletan bizi diren herritar askori ematen zaie proiektuan parte hartzeko aukera. Ekipamenduaren kudeaketa enpresa pribatu baten esku utzita dago, zeina lizitazio publikoaren bidez eman baitzen.

¹² Alcaraz, M. (2014): «La política cultural de Buenos Aires», in Buenas prácticas 2014. Culture 21. Hemen eskuragarri: http://www.agenda21culture.net/images/a21c/bones_practiques/pdf/BUENOS_AIRES_Pol_Cult_ESP.pdf

¹³ Buenos Airesko Gobernua. «Programa cultural en barrios». Hemen eskuragarri: <http://www.buenosaires.gov.ar/cultura/promocion/programas/barrios>

¹⁴ Sá Leitão, S. (2014): «CineCarioca, Rio de Janeiro», in Buenas prácticas 2014. Culture 21. Hemen eskuragarri: http://www.agenda21culture.net/images/a21c/bones_practiques/pdf/RIODEJANEIRO-SPA.pdf

¹⁵ Ibid.

CineCarioca ez da proiektu estatiko bat; beste erakunde batzuekin elkarlanean jarduten du –eskolekin, esate baterako–. Hala, adin guztietako haurrak zinemara joan ahal izatea bermatzen du (**CineCarioca Escola**).

Proiektua, horrela, «mundura irekitako leiho»¹⁶ bihurtu da, eta Complexo do Alemão-ko auzotarrak proiektu berriak planteatzen hasi dira, lanerako aukera berrien bila mugitzen hasi diren neurrian. Era berean, favelako ateak irekitzea ere ekarri du, bai hango auzotarrek udalerriko gainerako biztanleen berri izan dezaten, eta bai gainerako biztanleek favelan bizi direnen berri. Kulturarekiko kontaktuak erronka berriak planteatu ditu, eta lagungarri izan da populazioak bere buruari buruzko uste batzuk gainditzeko. Ildo horretan, proiektuak onura sozialak, konduktualak eta ekonomikoak ekarri ditu biztanleria osoarentzat.

Rio de Janeiroko Kulturako idazkariak Kulturaren Agenda 21en adierazi duen bezala, proiektuak hiru mailatan izan du inpaktua:

- Tokiko gobernuan: esperientzia honen bitartez, ikusi du kultura-garapenerako estrategiak funtsezko lanabesak direla bakerako baldintzak sortu ahal izateko. Hala, urtero CineCarioca bat irekitzea planteatu dute, kultura-eskaintzaren lurralde-oreka bat sustatzearren eta aldirietan bizi direnen kultura-eskubideak aldezteko.
- Inpaktua lurraldean eta populazioan: konfiantza eman die favelako biztanleei, handik irten eta hiria esploratzen has daitezke.
- Inpaktua kulturean: kultura-politika eta udal-mailako kultura-programa berriak iradoki ditu. Arteak hezkuntzarekin eta teknologiarekin konektatzen dituzten proiektu berriak.
- Zeharkako inpaktuak: enplegua sortzea.

Zer publikori zuzentzen zaion → Populazio osoari; berariaz, haurrei.

CineCarioca. Prefeitura do Rio de Janeiro. Hemen eskuragarri:
<http://www.rio.rj.gov.br/web/riofilme/cine-carioca>

B_ Programak/proiektuak

Bogota

Lehentasuneko eremu eta lurraldeetako eraldaketa eta kultura praktikak (APIS)¹⁷.

Programa / ekipamendua → Bogota hiriko Kultura, Josteta eta Kirol Idazkaritzak bultzatutako programa; Ciudad Bolívar, Usme, Rafael Uribe Uribe, Santafe, Suba, Bosa eta San Cristóbal herrietako lehentasuneko eremuetan garatzen da.

Helburuak → Programaren helburua kultura aukerak zabaltzea da, eta, halaber, bazterkeria eta arraza-diskriminazioa gainditzeko lagunduko duten proiektu artistiko eta kulturalen jasangarritasuna sostengatzea.

Deskribapena → Honetan datza programa: diru-laguntzen deialdi bat egiten da, hiriko hainbat auzotako elkarte eta taldeen proposamen artistiko eta kulturalak xede direla. Deialdiak irauten duen bitartean, aholkularitza ematen zaie taldeei, proiektuen formulazioa egiteko. Hogei ekimen hautatzen dira, eta, laguntza ekonomikoa ez ezik, etengabeko laguntza ere ematen zaie, profesionalen osatutako diziplinarteko talde baten eskutik; talde horrek aholkularitza-lana eta esperientziaren sistematizazioa egiten du.

Programa, Bogota hiriari dagokionez, «aurrerapen bat da, aukeratutako sektoreetako erkidegoen kultura-eskubideen aitortzari eta baieztapenari dagokienez ez ezik, baita lurralde kulturalen eta hiriko adierazpen moduen aniztasunari bagagozkio ere. Aukeratzen diren elkarte gehien kasuan, kultura-sustapenerako baliabideetara iristeko izan duten lehen aukera da, aipatutako lurraldeetako komunitateekin lan egiteko; era berean, kulturaren rola aitortzea ere bada, garapenerako eta bizikidetzarako zutabe gisa. Laguntza ekonomikoek eta proiektuei eskaintzen zaien laguntasunak denboran zehar jasangarriak izan daitezkeen prozesu komunitarioak sostengatzea dute helburu.»¹⁸

¹⁶ Ibid.

¹⁷ López, A. (2014): «Transformaciones y prácticas culturales en áreas y territorios prioritarios (APIS) en Bogotá», in Buenas prácticas 2014. Culture 21. Hemen eskuragarri: http://www.agenda21culture.net/images/a21c/bones_practiques/pdf/BOGOTA_ESP.pdf

¹⁸ Bogotako Alkatetza Gorena. «Arrakasta lurraldeetako eraldaketa eta praktika kulturaletarako deialdian» Hemen eskuragarri: <http://www.culturarecreacionydeporte.gov.co/convocatorias/exitos-en-convocatoria-transformaciones-y-practicas-culturales-en-territorios>

Zer publikori zuzentzen zaion → Gazteei, auzotarrei, ekintza komunaleko batzordeei, artista kolektiboek, ingurumen-erakundeei, komunikazio-erakundeei, populazio-ikuspegia duten taldeei eta abarri.

Bogotako Alkatetza Gorena. «Arrakasta lurraldeetako eraldaketa eta kultura praktiketarako deialdian» Hemen eskuragarri: <http://www.culturarecreacionydeporte.gov.co/convocatorias/exito-en-convocatoria-transformaciones-y-practicas-culturales-en-territorios>

Montreal

Kultura-bitartekaritza, Montrealgo kultura-garapenari buruzko Akordioa

Programa / ekipamendua → Montrealgo barrutietako kultura-bitartekaritzako programa.

Helburuak → Montrealgo barrutietako kultura-bitartekaritzako programaren xedea herritarrei laguntza ematea da, haiek artelanekin, pertsona sortzaileekin eta prozesu kulturalekin harremanetan jartzeko.

Deskribapena → Montreal hirirako kultura-bitartekaritza kultura demokratizatzeko emandako erantzuna da; baita artisten, artelanen eta herritarren arteko topaguneak sortzeko ere; hiriko ekintza-filosofia gisa ulertzen da. Hiriko barruti eta auzo guztietan kultura- eta arte-topaguneak zein trukeak bultzatzearen alde egiten du, eta parte-hartze kulturala sostengatzen du.

2003an, Montrealgo Kultura Garapenari buruzko Akordioak –Montrealgo hiriak eta Quebec-eko Kultura eta Komunikazio Ministerioak izenpetu zuten– kultura-bitartekaritzaren kontzeptua sartu zuen garapenaren arloan. 2005ean, Kultura Garapenerako Politikak lehentasunezko ekintza gisa beretu zuen proiektua. Herritar guztien kulturarako sarbidea aldezteko lehentasunezko ekintza irizten zaio kultura-bitartekaritzari.

Gaiari ematen zaion ikuspegiak honako hauek baloratzen ditu, batez ere: hurbiltasuneko harremana, zuzena eta pertsonalizatua; publiko-aniztasuna, bere jakintza eta gaitasunekin; kulturen parte hartzeko era berritzaileak. Kultura-bitartekaritzaren helburu nagusia, publikoak dibertsifikatzeaz gainera, erakarritako jendetza handitzea da, baina, hortik harago joan nahi du eta arte-hezkuntza, gizarte-inklusioa, herri hezkuntza, erkidego eta auzoetako sustraitzea eta lurraldearen garapena ere integratzen ditu.

«Kultura-bitartekaritzako proiektuak plano pertsonal, kolektibo edo sozialaren **aldaketa-perspektiba** batean txertatzen dira, **komunitateen kultura-garapena** ahaztu gabe. Horrela, lagungarri dira bizi-kalitatea hobetzeko eta **elkarrekin bizitzeko**. Alde horretatik, kultura-bitartekaritzak bat egiten du Kulturaren Agenda 21ean jasota diren garapenerako zeharkako helburuekin.»¹⁹

Hona hemen, laburbilduta, Montrealgo Kultura-Garapenari buruzko Itunaren esparruan sartzen diren ekintzak:

- Diru-laguntza programak xede hauetarako: kultura-organismoen ekintzak sostengatzea; barrutiaren tokiko garapena; konpromisoa hartzen duten artistak eta parte-hartzaileak.
- Kultura-bitartekaritzako proiektuak: bizizaleak, ausartak, kultura ezagutzen diren bideetatik ateratzeko, kulturarako sarbidea aldezteko, herritarrek kulturen parte har dezaten.
- Ekitaldi publikoen zainketa-, azterlan- eta ikerketa-jarduerak honako xede hauekin: imajinatzea, ulertzea, dokumentatzea, partekatzea eta berritzea.

Zer publikori zuzentzen zaion → Herritarrei eta sorkuntza kolektiboek

Kultura Sarbidea Sarea Montrealgo hiria. Hemen eskuragarri: <http://www.accesculture.com>
Kultura-bitartekaritza. Montrealgo hiria. Hemen eskuragarri: <http://montreal.mediationculturelle.org/>

¹⁹ Racine, D. «Kultura-bitartekaritza: ekintza-filosofia bat Montrealgo hirirako» Jardunbide egokiak 2014. Culture 21. Hemen eskuragarri: http://www.agenda21culture.net/images/a21c/bones_pratiques/pdf/MONTREAL_MedCult_SPA.pdf

Nantes

Le voyage à Nantes ²⁰

Programa / ekipamendua → Proiektu honek garapen turistikoa, kulturala, soziala eta lurraldeetako lotu nahi ditu.

Helburuak → Nantesko hiria dinamizatzea kulturalki, sozialki, ekonomikoki eta lurraldearen ikuspuntutik. Erakapen turistikoa bilatzearekin batera, hiritarren dinamismo kulturala aktibatzea eta biziberritu nahi da.

Deskribapena → XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, Nantes hiria zeharo itxuragabetuta gelditu zen, Loira eta Erdre ibaien ibilbidea aldatu zutelako; eta Bigarren Mundu Gerran jasandako bonbardaketen ondorioz. Horren eraginez, ondarea falta zitzaien; eraikin sinbolikorik, ondare sinbolikorik, turismorik ez zen hirian. Proiektu artistiko eta kultural indartsuak sortu izanari esker hasi zen imajinatzen tokiko Administrazioa beharbada erakar zitezkeela bisitariak hirira.

Planteatzen duten zeregina da azken hogei urteotan eraiki dena erakustea, kanpora ateratzea, komunikatzea, eta hiriko monumentu eta toki enblematiko guztiak lotuko dituen ibilbidea sortzea. Erabaki zen ibilbide hori hiriaren erdigunetik eta populazioarentzat baliotsuak ziren leku artistiko eta kultural guztietatik igaroko zela, geratzen zaien ondare historikoa ahaztu gabe. Era horretan, hiria lurralde-ikuspegitik dinamizatzeaz gainera, sozialki, kulturalki eta ekonomikoki ere dinamizatuko baita.

Nabarmendu behar da proiektu honek lortzen duela turismoa hirira erakartzea, eta, aldi berean, dinamizazioa dakar udalerriko biztanleentzat kulturaren bitartez. Honako hauek sartzen dira ibilbidean: monumentu handiak (katedrala, elizak), museoak (arte ederretakoa, historiakoa, historia naturalekoa,...), opera (eliza bat bezala irekita, edonor sar daiteke musika entzutera, eta nahi duenean irten), eskalotza ezeztatu zeneko oroitarria, **Royal de luxe** konpainia eta haren sorkariak, **Hangar à bananes** (tokiko artistak), La Fabrique (kultura-zentroa, sorkuntza, musika), arkitektura-eskola, argazkigintza, leku artistiko txikiak, arte-espazio berri iraunkor edo aldi batekoen sorkuntza.

Proiektu honek erakusten du artistak hiriaren parte direla, eta hiritar guztiei kulturarako sarbidea ematen zaien bitartean nola eraldatzen duten lurraldea, eta gai dela turismoa eta hiriko ekonomia dinamizatzeke ere.

Zer publikori zuzentzen zaion → Nantes hiriko bizilagunei, hiria bisitatzen duten turistei.

Le voyage à Nantes. Hemen eskuragarri: <http://www.levoyageanantes.fr/>

C_ Harreman-esparrua

Manresa

Kursaal, espai d'arts escèniques ²¹

Programa / ekipamendua → Alde batetik, udalerriko kultura-programazioa prestatzea xede duen herritarren parte-hartze programan zentratzen da proiektua; bestetik, hasieran, Kursaal antzoki-auditoriuma berreskuratzeko helburua zuen, eta gaur egun berori mantentzea eta ustiatzea.

Helburuak → Kursaal antzoki-auditoriumak kultura-programazio egonkorra eskaintzen du urte osoan zehar eta berariazko helburutzat dauka herritarrek parte hartzea hiriko kultura programazioan.

²⁰ Blaise, J. (2012): «Kultura hiria egiteko. Nantesko esperientzia». Hemen aurkeztu zen txostena: Pública 12. Kultura-Kudeaketako Profesionalek Topaketak, Madril, 2012ko urtarrilak 26 eta 27. Hemen eskuragarri: <http://www.fundacioncontemporanea.com/asi-fue-publica-12/ponencias/>

²¹ Banc de Bones Pràctiques de la Fundació Carles Pi i Sunyer (2010) Kursaal, espai d'arts escèniques. Bartzelona: Bartzelonako Diputazioa. Hemen eskuragarri: http://www.bbp.cat/ficha_completa_diba.php?su_idioma=&on=fora

Deskribapena → Kursaal antzokia XX. mendearen hasieran eraiki zen, baina 1998an itxi egin zuten. Manresako herritarrek, hala ere, erreferente kulturaltzat zuten antzokia, eta kultura-jarduerak antolatzen jarraitu zuten eraikinaren kanpoko espazioetan. Herritarren eskariak akuilaturik, ekipamendua berriro ireki zen zazpi urte geroago, proiektu berri baten barruan: kultura-ekipamendua berroneratzea eta kultura programatzea herritarren eskutik.

Gaur egun, proiektua eredu misto batez kudeatua da: udalerriko espazio eszenikoak kudeatzeko xedez sortutako enpresa publiko batek –Manresana d'Equipaments Escènics (MEES)– eta El Galliner kultura-elkarteak. Azken erakunde honek bultzatu zuen antzokiaren inaugurazioa, eta, gaur egun, bera arduratzen da ekipamenduaren programazio egonkorraz. Hiriko kultura-programazioan zuzenean parte hartzen duten hainbat pertsona boluntarioz osatuta dago.

Kursaalen ez ezik, gainerako udal-antzokietan ere parte hartu ahal izateko, erakundeak, udalarekin adostutako akordio baten indarrez, hainbat aholku-batzorde sortu ditu antzerkiaren, dantzaren eta musikaren eremuan. Aholku-batzorde horiek aldizka biltzen diren hainbat erakunde, aditu, aktore eta musikariz osatuta daude eta udalerriko programazio eszenikoan eta musikalean parte hartzeko bitarteko bat dira.

Proiektuaren finantzaketa publikoa eta pribatua da. Hainbat diru-laguntzaren ekarpenak jasotzen dira, batez ere Manresako Udaletik datozenak, eta beroriei esker egiten zaie aurre langileen eta azpiegituren gastuei. Sarrerak saldutakoaz, kultura-proposamenen aldetik sortutako gastuak ordaintzen dira. Azken urteotako austeritate-politikak direla eta, lankidetzako ekarpen pribatuetara ere jo behar izan da, ohiko aktibitateei eutsiko baldin bazitzaien.

Zer publikori zuzentzen zaion → Udalerriko kultura-programazioan parte hartu nahi duten herritarrei.

Kursaal. Espai d'art escèniques de Manresa. Hemen eskuragarri: <http://www.kursaal.cat/>

2_Eredua. Adierazkortasun-politikak

A_Ekipamenduak

Zaragoza

Zaragoza activa ²²

Programa / ekipamendua → Zaragoza Activa udalak eskaintzen duen zerbitzu publiko bat da, La Azucarera eta Las Armas ekipamenduetan banatuta dagoena.

Helburuak → Ekosistema ekintzaile, berritzaile, sortzaile eta lankidetzakoa bultzatzea hirian, jarduera ekonomikoa sortzen duten, enplegua sortzeko gai diren eta gizarte-inpaktu eraldatzailea dakarten ekimenak sostengatuz.

Deskribapena → Zaragoza Activa La Azucarera XIX. mendeko antzinako fabrika batean kokatua dago; bertan bost eremutan sailkatutako jarduerak gauzatzen dira: ekintzaileak/enpresa, enplegua, sareak, Made in Zaragoza (sormena) eta gizarte-adimena. Ekipamenduak honako hauek ditu: ekintzaileen haztegi bat, ideia-mintegia, enplegu eremu bat, adimen kolektiborako espazio bat, 30 urtez azpiko gazteen proiektuentzako abialekua, ekintzaileentzako aholkularitza, ezagupen-laborategi nomada bat, gazteentzako Espainiako lehen liburutegia eta AJE Aragon (Aragoiko Enpresaburu Gazteen Elkarte) erakundearen egoitza.

Las Armas, berriz, hiriko sormen eta kultura gune berri bat eratzen ari da. Beste hauek ditu: Ekonomia Sortzaileko Zentroa, kultura eta sormen-industrietarako zortzi lokal eta Zentro Musikal eta Artistikoa. Las Armas ekipamenduan Zaragoza Activa Made in Zaragoza proiektua bultzatzen ari da, ekonomia sortzaileko kluster bat, merkataritza-gune banatu gisa lan egin nahi duena, hala, San Paulo auzoa ekonomikoki, sozialki eta kulturalki dinamizatzen duela.

Proiektuak, horrela, dinamizazio sozialaren izaera luke, ekintzaileen euskarri eta laguntzarako espazioaren inguruan enplegua sortzeko eta, aldi berean, Zaragozako San Paulo auzoa lurralde gisa, sozialki eta kulturalki dinamizatzeke.

²² Oliván, R. (2013) "Ciudades Creativas 2013 – Zaragoza Activa". Hiri Sortzaileen VI. Nazioarteko Jardunaldietan aurkeztutako txostena, Buenos Aires, 2013ko abuztuak 23 eta 24. Hemen eskuragarri: <http://www.globbtv.com/microsite.aspx?id=30&cmd=0&cat=554>

Zer publikori zuzentzen zaion → Zaragozako biztanle guztiei; berariaz, ekintzaileei eta enplegurik gabe daudenei.

Zaragoza Activa. Hemen eskuragarri:
<http://www.zaragoza.es/ciudad/sectores/activa/somos.htm>

B_Programak/proiektuak

El Carpio (Kordoba)

Scarpia. Ingurune naturaleko eta hiri-ingurune esku-hartze artistiko jardunaldiak

Programa / ekipamendua → Proiektu hau hainbat diziplinatako ekimenak eta sorkariak sustatzen dituzten jardunaldi batzuetan gauzatzen da.

Helburuak → Proiektu hau El Carpio arte ederretako ikasle baten ekimenetik sortu zen, arte garaikidea herrian ezagutzera emateko eta herrira ekartzeko xedez.

Deskribapena → Scarpia proiektua arte publikoarekin, parte-hartzailearekin, arte sozialarekin, eta izadian esku hartzeko proiektuekin lotutako irakaskuntzak eta esperientziak aztertzen eta praktikatzen dituen arte-erakusketa bat da, urtero El Carpio herrian egiten dena.

Bi asteko iraupena du eta bertan nonahiko parte-hartzaileek arte publikoko proiektuak gauzatzen dituzte bai nazio mailan eta bai nazioartean izen finkatua duten hainbat artistaren zuzendaritzapean.

Ekimen pribatua da, hirugarren sektorearena, finantzaketa publikoa jasotzen badu ere.

Tokiko eraldaketa-esperientzia gisa ez ezik, biztanleen inplikazio-mailagatik eta gizarte-eta lurralde-ikuspegitik duen erabilgarritasun handiagatik nabarmentzen da. Kulturaren, espazio publikoaren eta gizartearen inguruko gogoetatik harago, proiektuan aurreikusitako ekintza asko tokiko biztanleekin egiteko pentsatuta daude; gertaera horretatik kulturak herritarrentzat suposatzen duena hobeto ezagutzea eratoritzen da eta, hortaz, berorrek duen garrantzia garapen ekonomiko eta sozialerako²³.

Zer publikori zuzentzen zaion → Herritarrei oro har, artista kontsolidatuei eta **amateurrei**.

Scarpia. El Carpio ingurune naturaleko eta hiri-ingurune esku-hartze artistiko jardunaldiak. Hemen eskuragarri: <http://scarpia2013.blogspot.com.es/>

C_Harreman-esparrua

Bartzelona

Ateneu Popular 9barris

Programa / ekipamendua → Auzolanean kudeatutako udal-ekipamendua.

Helburuak →

_Artearen eremuan: sorkuntza indartzea kalitate artistikotik, batez ere zirkuaren munduko diziplinei lotuta eta sozialki konprometitutako ikuspegi ez-merkantilistarekin.



_ Programazio eta kultura zabalkundearen eremuan: proposamen eta proiektu kulturalak auzoetara hurbiltzea, gora datozen kulturak indartuz eta profil desberdinen arteko oreka mantenduz programazioan; ikuskizunetara egokitutako prezio-politikarekin.

_ Gizarte-hezkuntza eremuan: gizarte-konpromisoan eta herritarren arteko elkartasunean arreta jarri, izaera kritikoa sustatuz. Hori egiteko Zirku Sozialak hezkuntza-tresna gisa ematen dituen balioetan eta prestakuntzan oinarritzen dira (proiektuaren elementu zentrala jaiotzen unetik).

_ Gizarte-mugimenduen eta Bartzelonako elkarte-ehunaren eremuan: sarea sustatzen duten eta ikuspegi eraldatzaile eta solidario batetik proiektuak garatzen dituzten proposamenen euskarri izatea.

Deskribapena → Ateneu Popular 9barris era komunitarioan kudeatzen den zentro soziokulturala da, Bidó de Nou Barris elkarteak eta Bartzelonako udalak sustatzen dutela.

Ekimena 1977an sortu zen, auzotarrek asfalto-lantegi bat okupatu zutenean; herritarren ekintzatik jaiotzen eta garatutako ekimena da, beraz. Oraingo proiektua kudeatzeko, Bidó de Nou Barris elkarteak sortu zen. Berori da gaur egungo proiektuaren arduraduna, Ateneun biltzen diren beste elkarte eta kolektibo batzuekin batera. Esandako elkarteak, Administrazio publikoekin adostasunetara iritsi ondoren, hainbat akordio garatu ditu, herritarren kudeaketaren esparruan, udal-jabetzako ekipamendua kudeatu ahal izateko.

Proiektuak kulturaren, esku-hartzearen eta lurraldearekiko loturaren ideia berreskuraturik, gizarte-eraldaketan lagungarri izango den proiektu baten aldeko apustua egiten du. Balio eta/edo irizpide hauek hartu ziren goiburutzat: demokrazia, zeharkakotasuna, gerdentasuna, kultura eskubidea, irisgarritasuna, hurbiltasuna, lurraldea eta autonomia.

Kudeaketa, jada aipatu den bezala, komunitarioa da; alegia, borondatezko eta irabazi-asmorik gabeko ekintzan oinarritua kudeatzen ditu baliabide publikoak, lurraldeari lotutako erakunde baten eskutik. Hortaz, parte-hartze kanalak finkatuta ditu, bai erabakiak hartzeko eta bai aktibitateak gauzatzeko orduan. Egungo espazioak honako hauek dira:

- _ Ateneuko batzarra.
- _ Bidó de Nou Barris Kudeaketa Batzordea.
- _ Eduki batzordea: batzorde artistikoa, programazio batzordea, prestakuntza eta zirku sozialeko batzordea, komunikazio espazioa, batzorde teknikoak.
- _ Unean-uneko Lantaldeak.

Proiektuaren finantzaketa honela banatzen da: % 50 funts publikoetatik (Bartzelonako Udala, Nou Barris barrutia eta Kultura Institutua (ICUB), Kataluniako Generalitateko Kultura Saila, Kultura Ministerioa (INAEM) eta beste %50 beren baliabide propioetatik; hau da, proiektuaren beraren aktibitateetatik eta lortutako ekarpen pribatuetatik.

Nabarmentzekoak dira, orobat, proiektuak eskaintzen dituen erabilera artistikoak, aktibitateak eta tresnak:

_ **Erabilera artistikoak:** arte eszenikoak, zirkua, dantza bertikala eta musika.

_ **Funtzioak:** zirku sorkuntza, ekoizpen eta zabalkundea sostengatu, prestakuntza eta zirku soziala, kultura-programazioa.

_ **Jarduerak:** arte sorkuntzako proiektuetarako espazioak eta tresneria teknikoak aldi baterako lagatzea, egoitza teknikoak, egoitzen emaitzen erakusketa eta entsegu irekiak, kultura-programazio etengabea, ikuskizun banaketa, zirku sozialeko prestakuntzako heziketa, bisita pedagogikoak eta Ateneu Popular 9 Barris proiektuaren aurkezpenak, argi eta soinu arloko zerbitzu teknikoak, ikasteko lekuak liburutegiarekin, hemeroteka espezializatua, eta beste ekitaldi eta jarduerak batzuk.

_ **Erremintak:** egoitzak, espazio eta tresneria alokairua, zirkuko ikastaroak eta tailerrak.

Zer publikori zuzentzen zaion → Ateneu Popular 9Barris parte-hartzera irekitako ekipamendua da; era berean, honako hauek eskaintzen ditu: jarduerak, prestakuntza, sormen eta ekoizpen espazioak, espezifikoak profesionalentzat eta artea interesatzen zaien lagunentzat, zirku sozialean batez ere.

Ateneu Popular 9 Barris. Hemen eskuragarri: <http://www.ateneu9b.net/>
Ateneu Popular 9 Barris. Ajuntament de Barcelona. Hemen eskuragarri:
<http://fabriquesdecreacio.bcn.cat/es/node/16>

3_Eredua. Zerbaiten parte izateko politikak

A_Ekipamenduak

Medellin

Liburutegi Parkeak

Programa / ekipamendua → Liburutegi Parkeak proiektu estrategikoa 2004-2007rako Garapen Planaren barruan kokatzen da. Medellingo hainbat auzotan kokatutako hurbiltasuneko ekipamenduak dira eta auzoen errealitatearekin konektatutako zonako zentralitateak izan daitezen pentsatuak daude.

Helburuak → Proiektuaren helburua hiria kalitateko espazio publikoz hornitzea da. Garapenerako aukerak sortzea komunitateari, haien premiarik handiena duten kolektiboentzako aukerak.

Deskribapena → Gizarte-eraldaketarako proiektu politiko gisa sortu zen; irizten zaio hezkuntzak eraldaketarako aukera handiak ematen dituela. Ildo horretan, Liburutegi Parkeen bitartez Medellingo biztanleentzat aukera berriak sor daitezkeela uste da.

Liburutegi Parkeak ez dira asmatu liburu-erakundeak izan daitezen, baizik eta zentro kultural izateko: kultura-funtzioak bete behar dituzte, aisialdikoak, hezkuntzakoak, denbora-pasakoak, heziketakoa eta komunitate behartuenera zuzendutako sostengu-funtzioak. Gizarte-errealitatearekin konektatutako zonako zentralitateak izan daitezen planteatu dira, eta garapen aukerak eskain diezazkietela erkidegoari honen beharrezan araberak²⁵.

Proiektuaren sorkuntza-fasean hiriaren errealitatea aztertu zen, eta iritzi izan zitzaion ekipamenduak giza garapen indize apalena zuten auzoetan kokatzea zela egokiena, eta, horretara, zuzenean eragingo zela aukera horien premia handiena zuten biztanleengan. Ekipamenduak indize altueneko auzoetan kokatu izan balira, ez zitzaiekeen aukerarik eskainiko beharrik gorriena zutenei («Medellin ongien hezitakoa» - «Ederrena jenderik apalenarentzat»).

Proiektuaren garapen-fasean eta ekipamenduak eraikitzen ari zirela, herritarren parte-hartzetik eta gizarte-mobilizaziotik abiatu ziren; izan ere, Administrazio publikoek uste zuten herritarrek ez zituzketela, bestela, espazio horiek bere egingo, eta gerora zailagoa izango zatekeela planteatutako funtzioak betetzea. Arrazoi horregatik, Liburutegi Parkeak herritarren parte-hartzetik eta gizarte-mobilizaziotik abiatuta sortu ziren, proiektuaren hasiera-hasieratik.

Topagune, liburutegi, Interneteko espazio, ekintzailatza zentro (gizarte-ekintzailatzako programa batekin), hirugarren adinerako biltoki eta ludoteka izateko pentsatu ziren.

Hala, Liburutegi Parkeak aukerak sortzeko espazio gisa, pertsonen topagune modura – ekintzailatza zerbitzuekin –, sei urtez azpikoen arretarako, teknologia, zinema, antzerki, tailer eta abarretarako diseinatu ziren.²⁶ Espazio publiko hauen kudeaketa, hitzarmen bitartez, Comfama – Caja de Compensación Familiar de Antioquia erakundearen (lau parke) eta Comfenalco – Caja de Compensación Familiar Comfenalco de Antioquia delakoaren (parke bat) esku dago. Liburutegi Publiko Pilotua izeneko udal-erakundea da Liburutegi Parkeen sare guztia koordinatzen duena, eta sare hori Medellingo Liburutegi Sistemaren parte da (hor biltzen dira liburutegi publiko guztiak, esternalizatuak barne).

Liburutegi Sareak liburutegien programa guztiak gehitzen ditu, sistemako kide egin aurretik, eta balioetsi egiten ditu, beste antzeko batzuekin homologa daitezen eta haien inpaktua arrazoizkoa izan dadin, eta aldi berean haren sustapena beste eremu batzuetan hobetu ote daitekeen haztatzen da. Hauek dira programetako batzuk:

- Lan-mahaiak (komunitatearen eskaerak jaso, eta garapenean dauden programak monitorizatzen dituzte).
- Gure auzoa Aretoa (Liburutegi Parkeetan kokatuta daude, tokiko memoria berreskuratzea sustatzen dute eta komunitateak kultura-lan espezifikoen parte hartzea sustatzen dute).
- Aiton-amona ipuin-kontalariak (borondatezkoak, irakurketaren sustapena).
- Liburutegi-hedapena (mailegu-zerbitzua hedatzea lekualdatzeko zailtasunak dituen populaziora, urrutiko lekuak...).
- Argazki-artxiboa (Liburutegi Publiko Pilotuaren ondare-funtzen parte bat).
- «Pedrito Botero» haurrentzako ipuin-lehiaketa.
- Haur Literatura mintegia.
- Ikasgela Irekia (unibertsitate-komunitatearen eta publiko orokorraren arteko interakzioa).
- HiperAuzo (ezagutzaren transferentzia, IKTen erabilpena, herrietako memoria berreskuratzeke praktiketan. Kasu askotan komunitateetako indarkeriaren ezkutuko zergatiak azaleratzen laguntzen dute, eta aldi berean, gazteen hazkunderako eta autorrealizaziorako espazio bat eskaintzen dute).

²⁵ Kreanta Fundazioa. Medellin-Bartzelona katedra. Medellindik ikasten. Jardunbide egokiak. Hemen eskuragarri: <http://catedramedellinbarcelona.org/archivos/pdf/34-BuenasPracticas-ParquesBiblioteca.pdf>

²⁶ Medellin-Bartzelona katedra. Liburutegi Parkeak Aurkezpen eguna.

Zer publikori zuzentzen zaion → Biztanleria osoari, baina, bereziki, giza garapen indize apaleko auzoetako herritarrei.

Peña, L.: «Las bibliotecas públicas de Medellín como motor de cambio social y urbano», in **Textos universitaris de biblioteconomía i documentació**, 27. zk., 2011ko abendua.artzelona: Facultat de Biblioteconomía i Documentació Universitat de Barcelona. Hemen eskuragarri: <http://bid.ub.edu/27/pena2.htm>

B_Programak/proiektuak

Torre Pacheco

AndoEnredando proiektua

Programa / ekipamendua → Torre Pacheco-ko Udalak proposatutako programa bat da, film laburren jaialdi bilakatu dena.

Helburuak → Gizarte-integrazioa sustatzea, diskriminazioaren aurka borroka egitea, eta aukera-berdintasuna bermatzea herritar guztientzat.

Deskribapena → Proiektua dibertsitaterako film laburren jaialdi bat da eta bere xede nagusia kultura-aniztasuna sustatzea da, ikus-entzunezko baliabideak erabiliz jatorri desberdinetako gazteen komunikazio-kanal gisa²⁷.

Parte-hartzeak hiriko 50 nazionalitate baino gehiagoren arteko elkartasuna sustatzen du eta gizarte-bazterketari aurre hartzen laguntzen du bitarteko sortzaile eta berritzaileekin.

Programan, jaialdiaz gainera, beste aktibitate batzuk ere sartzen dira: bizikidetzarako tutoretzak eta sormenezko ikus-entzunezko tailerrak.

Tutoretzen xedea ikastetxeetan jokabide baztertzaileei aurre hartzea da, gizarte-intereseko gaiak ikasi eta lantzearen bidez. Tailerren helburua, berriz, ikus-entzunezko lengoaia erabiliz kultura-aniztasuna sustatzea da. Tailerren programazioan sartzen dira: film laburren sorkuntza, ziberserieak, spot sozialak sortzeko tailerrak, interpretaziokoak, karakterizaziokoak, diseinu eta serigrafia, diseinu eta moda, etab.

Finantzaketa Lan eta Immigrazio Ministeriotik eta Integrazioarako Europako Funtsetik dator.

Zer publikori zuzentzen zaion → Nazionalitate desberdinetako gazteei.

Andoenredando jaialdia. Torre-Pachecoko Udala. Hemen eskuragarri: <http://www.torrepacheco.es/servicios-municipales/cultura/festival-andoenredando>
Andoenredando proiektua. Torre-Pachecoko Udala. Hemen eskuragarri: <http://www.torrepacheco.es/servicios-municipales/cultura/proyecto-andoenredando>

²⁷ The Maytree Foundation (2012) «Hiri garaileen ideia onak. Udalen aitzindaritzaz etorkinen integrazioan. Espainia.» Hemen eskuragarri: http://citiesofmigration.ca/wp-content/uploads/2012/03/Municipal_Report_Main_Report_Spanish.pdf

C_Harreman-esparrua

Madrid

La Kalle Kultura-Elkartea

Programa / ekipamendua → Vallecasko (Madrid) irabazi-asmorik gabeko elkarte, garapenaren alde lan egiten duena, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan direnen integrazioa bilatuz.

Helburuak →

- _ Gizarte-bazterketarako arriskuan diren gazteei beren gaitasunak eta trebetasunak garatzen laguntzea.
- _ Enplegua lor dezaten laguntzea.
- _ Lanbide batean kualifikatzeko aukera eskaintzea.
- _ Berorien perspektiba pertsonalak hobetzea.

Deskribapena → La Kalle Kultura-Elkartea inspirazio iturri izan nahi du gazteentzat, lagundu nahi die beren trebetasunak gara ditzaten eta perspektiba pertsonalak hobetu ditzaten. Erakundea parte-hartzaileek, bazkideek, laguntzaileek eta langileek osatzen dute.

Elkartearen balioak honako hauek dira:

_Hezkuntza integrala.

Pertsonaren hezkuntza integrala bilatzen dute, haren errealitatea kontuan harturik eta haren garapen-eremu guztiei kasu eginik: Osasuna, pertsona bezala -harremanak, prestakuntza-, lana, aisialdia eta gizartean parte-hartzea.

_Norberaren ikaskuntzaren autore.

Norberaren ikaskuntzaren kontzientzia izatetik abiatzen da. Ikaskuntzak berenganatu ahala, ezagutza berriak gehitzea bilatzen da modu autonomoan.

_Ikasketa etengabea eta kolektiboa.

Irizten zaio mundu guztiak dituela ezagutzak eta bizitzako esperientziak.

_Parte-hartzea.

Gizarte demokratikoaren eskubide eta betebeharrak gisa ulertuta. Irizten diote parte-hartzea gauzatuz (jarduerak antolatuz, norberaren prozesua eraikiz, erakundearen bizitza eraikiz) ikasten dela parte hartzen; era horretan, gainera, zerbaiten parte izateko sentimendua sortzen da.

Erakundea ez dago urteroko diru-laguntzetarako deialdien mende soilik; izan ere, aktibitate propioak gauzatzen ditu baliabideak sortzeko: epe luzeko zerbitzu-kontratuak eta lankidetzak-hitzarmenak ditu Administrazio publikoarekin eta gizarte-erantzukizunean konprometitutako enpresekin.

Zer publikori zuzentzen zaion → Bazterrerara geratzeko arriskua dutenei.

La Kalle Kultura Elkartea. Hemen eskuragarri: <http://www.lakalle.org/index.php/es/>



Hurbiltasuna faktorea kultura-politiketan **_2015**



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA